



Juan Luis Garitaonandiak euskaran trebatzen laguntzen dio Jheimy Fernanda Lopez etorri berriari.



Maryory Echavarriak eta Julen Bengoak urte eta erdi daramate euskal kulturari buruzko solasaldiak izaten.

ETORRI BERRIAK EUSKARAN ETA EUSKAL KULTURAN MURGILTZEN

Durangaldera bizitzera etorritako hainbat migratzailek euskara ikasteko eta euskal kulturara hurbiltzeko erabakia hartu dute. Horretarako, Durangoko bikote linguistikoaren programan eman dute izena. Kafe-tertuliak egiten dituzte herritar boluntarioekin, apurka-apurka gizartean integratzeko. / 2-3

Irati Bazetak jaso du Azokako 7. Sormen Beka

Margogintza landuz, Bazeta abadiñarrak dozena bat pieza sortuko ditu *Hariaren isla* proiektuaren barruan; urtebeteko epea du egitasmoa garatzeko. / 31



Gazte Asanbladak agerraldia egin du Durangoko Gaztetxea "arriskuan" dagoela ohartarazteko / 4

Txakurrek ardiei egindako erasoak kezka iturri bihurtu dira Durangaldean azken urteetan / 10



Bikote linguistikoak, etorri berrientzako integrazio lanabes

Durangon 83 bikote linguistiko daude. 78 boluntariok hizkuntzak ikasten laguntzen diete 114 migratzaileari

Ekaitz Herrera ETORRI BERRIAK

Durangoko Udaleko Immigrazio Sailak *Hitz Egidazu* programa sortu zuen 2011n, udalerrira bizitzera etorritako herritarrei hizkuntzetan trebatzen laguntzeko. Programak abiapuntu erraza zuen eta dauka: herritar boluntario batek etorri berria den bati hizkuntza ikasten laguntzen dio, astean behin mintzapraktika-saioa edo kafe-tertulua eginda, gutxi gorabehera. Hartu-eman horiei *bikote linguistiko* deritze, eta momentu honetan 83 daude Durangon. Parte hartzen duten herritarretatik 73 boluntarioak dira, eta 114 ikasleak. Horrez gainera, Immigrazio Saitetik azaldu dutenez, programa giltzarria da bertako herritarren eta atzerriarren arteko elkarbizitza testuinguru ez-formaletan sustatzeko. Bikote linguistiko horie-



Durangoko kaleak.

tatik guztietatik bost bat dira euskara lantzen dutenak. Honako erreportaje honetan, bikote bi gerturatu ditugu. Juan Luis Garitaonandiak eta Jheimy Fernanda Lopezek osaturikoa, eta Maryory Echavarriak eta Julen Bengoak osaturikoa.

Hizkuntza boluntarioen profila

Durangoko Immigrazio Sailak bikote linguistikoaren programak emandakoa jasotzen du ikasturte bakoitzaren amaieran. Alabaina, indarrean dagoen ikasturtea amaitu barik dagoenez, oraingo ez du balantzerik egin. Hori dela eta, azken datuak 2023-2024ko ikasturtekoak dira. Honako hau da hizkuntza boluntariotza programan parte hartzen dutenen profila:

- **Boluntario kopurua:** 82.
- **Jatorri geografikoa:** Durango (71), Abadiño (5), Berriz (2), Elorrio (1), Iurreta (3) eta Zornotza (1).
- **Generoa:** 64 emakumeak izan ziren; 18, gizonak.

Hizkuntza ikasleen profila

Boluntarioen kasuan lez, hizkuntza ikasleen azken datu estatistikoak 2023-2024ko ikasturtekoak dira.

- **Ikasle kopurua:** 121.
- **Generoa:** 64 emakumezko eta 57 gizonezko.
- **Jatorri herrialdeak:** Bolivia, Brasil, Kolonbia, Etiopia, Ghana, Ginea Bissau, Mali, Maroko, Nigeria, Mauritania, Nikaragua, Pakistan, Portugal, Sahara, Senegal, Somalia eta Ukraina.
- **Bizileku duten udalerria:** 80 Durangon bizi dira. Gainerakoak, Abadiño (9), Atxondon (5), Berrizen (8), Iurretan (6) eta Zaldibarren (6).

"Asko harritu egiten dira gu euskara ikasten ikusita"

JUAN LUIS GARITAONANDIA ETA JHEIMY FERNANDA LOPEZ BIKOTE LINGUISTIKOA

Garitaonandia eta Lopez bikote linguistiko dira orain hilabete pasatxotik. Lehenengoak euskara irakasten dio bigarrenari. Astero batzeko ohitura dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Jheimy Fernanda Lopez (Kolonbia, 1978) orain urtebete etorri zen Euskal Herrira. Izurtzan bizi da eta euskara ikasten hasi da. Astean birritan joaten da Durangoko Udal Euskaltegia, oinarriko euskara klaseak jasotzera. Horrez gainera, martitzen arratsaldeetan kafe-tertulua egiten du Juan Luis Garitaonandiagaz (Abadiño, 1942). Bikote linguistikoa Durangoko Gazi Goxo kafetegian batzen da, batak besteari euskara irakasteko.

Zergatik erabaki zenuten bikote linguistikoaren programan izena ematea?

Juan Luis Garitaonandia: Hiru onura nagusi ikusten dizkiot: etorri berriei euskararen murgiltzen laguntzea, euskarari berari zabalkundea ematea, eta, etxean gora begira geratzea aspergarria izan daitekeenez, norbere burua martxan, aktibo, mantentzea. Nik neuk ere asko ikasten dut hemen.

Jheimy Fernanda Lopez: Migratzailea zarenean, hizkuntzak berebiziko garrantzia hartzen du. Eta hemen, nahiz eta gaztelania ere egiten den, euskara oso garrantzitsua da. Beti gustatu izan zaizkit hizkuntzak, eta euskara nire hirugarrena da. Gaztelaniari eta ingelesari euskara batuko diet orain. Hizkuntza gatxa da, baina, gutxienez, ulertzea lortu gura dut. Programan izena emateko beste arrazoi bat hemengo kulturaren barneratzea eta herritarrek ezagutzea, lagunak egitea, da. Gainera, Juan Luis ez da nire bikote-kide linguistiko bakarra. Beste herritar bati ere laguntzen diot, gaztelania irakatsita.

Zelan antolatzen zarete topaketak egiteko?

J.F.L.: Lau aste dira elkar eza-gutu eta euskara lantzen hasi ginela. Oso bilakaera ona izan da orain arte. Juan Luisek ari-



Garitaonandiak eta Lopezek ariketak egiten dituzte elkarrengaz.

"BESTE BATI LAGUNTZEAK ETA EKARPEN EGITEAK BETE EGITEN NAU"

ketak ekartzen dizkit astero-astero. Hizketa gaiak prestatzen ditu eta ni apurka-apurka hiztegia lantzen nabil. Irakasle zorrotza da! (barrez)

J.L.G.: Astean behin batzen gara, martitzenetan. Konpromiso hori hartu dugu. Jheimy Udal Euskaltegitik irtendakoan, kafetegian jarraipena ematen diegu ikasketei. Hasteko, elkar euskaraz agurtuta hasten ditugu topaketak. Gero, zelanbaiteko ikasgaiari heltzen diogu. Gai bat lantzen dugu astero. Joan zen astean, gure bizilekuek eta familiez berba egin genuen. Asteon, mendiak izango ditugu ahotan. Datorren astean, umeentzako ipuin bat landuko dugu. **Jheimy, programa hau lagungarria da euskaldunen artean barneratzeko?**

J.F.L.: Urtebete honetan oso ondo sentitu naiz hemen, oso

pozik nago, nahiz eta euskaldunak itxi samarrak zareten! (barrez). Kuadrillak egituratuta daude eta taberna batera sartu eta baten bategaz berba egitea gatx izaten da. Beraz, horrelako programak oso onuragarriak dira jendea ezagutzeko, hartu-emanak egiteko. Hona heldu nintzen arte ez nuen euskaldunen berri. Hemengo paisaia txundigarria da, gainera, eta asko gustatzen zait paseatzea eta ibiltzera irtetea. Klimara egokitzea gatxagoa zait, tropikoko herrialde batetik nator eta.

Zer ematen dizue lankidetzak honek? **J.L.G.:** Poza. Beste bati laguntzeak eta ekarpen egiteak bete egiten nau. Gainera, honek guzti honek adimena argi mantentzeko ere balio dit. Funtsean, zoriontsuago egiten nau.

J.F.L.: Migratzaileok euskara ikastea erabaki dugula diogunean, herritar asko harritu egiten dira. Harridura eta poza nahasten zaizkie aurpegiatan. Izan ere, ez gatoz hona bizitzera edo lanera bakarrik. Hizkuntzari ekarpena egitea ere bagatoz, galdu ez dadin, bizirik iraun dezan. Zerbait polita dela derizot.

"Euskal kulturagaz maiteminduta nago"

MARYORY ECHAVARRIA ETA JULEN BENGEOA BIKOTE LINGUISTIKOA

Echavarría Kolonbiatik Durangora etorri zen orain urte bi. Bengoak euskarara eta euskal kulturara hurbiltzen laguntzen dio etorri berriari. Bigarren urtea dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Maryory Echavarría (Kolonbia, 1981) eta Julen Bengoak (Durango, 1993) joan zen ikasturtean ezagutu zuten elkar. Bikote linguistikoetako kafe-tertuhiak aberasgarriak izan zirenez, ikasturte honetan egitasmoagaz jarraitzea erabaki dute.

Honako hau bigarren ikasturtea duzue. Iazko ikasturtekoa esperientzia ona izan zen seinale.

Maryory Echavarría: Urte bi daramatzat Durangon. Programa hau bertako jendea ezagutzeko, lagunak egiteko, bertako kultura ezagutzeko eta integratzeko era bat delakoan nago. Oso baliagarria zait hemengo ezaugarri kulturalak ezagutzeko eta apurka-apurka euskarazko berbak ulertzeko. Julenek izugarri laguntzen dit bide horretan.

Hizkuntzari eta euskaldunei dago-kienez, zerk piztu dizu arreta?

M.E.: Egia esaten badizut, maiteminduta nago euskal kulturagaz. Askok gustatzen zait euskaldunek daukaten komunitate eta kideza-sentipena. Zuen dena babesteko eta mantentzeko duzuen sen hori, hizkuntza babesteko gogo hori, adibidez, oso polita da. Euskaratik gehien gustatzen zaidana da berba ba-koitzak esangura bat duela. Denak du esangura edo zentzu



Echavarría esan du euskal kulturaz maiteminduta dagoela.

bat, esangura sakon eta eder bat. Horrek arreta pizten dit, oso gauza polita da eta. Askok gustatuko litzaidake egunen batean euskaraz egitea.

Julen: zeu zara Echavarríaren bi-delaguna. Zergaitik erabaki zenuen hizkuntza boluntario egitea?

Julen Bengoak: Nire inguruko lagunak, kuadrilla, jendea... denak dira bertakoak, baina gero, errealitatea askoz ere zabalagoa da. Izan ere, Durangoren moduko leku batean lagunak, poteoa eta halakoak ikusten dituzu, baina hortik kanpora errealita-

te desberdin ugari dago. Interesgarri deritot bestelako errealitate batzuetara gerturatzeari eta nire errealitatea ez dutenekin partekatzeari. Nik neuk ere asko ikasten dut Maryorygaz. Migratzaileek dituzten oztopoak, aurre egin beharrekoak... horiek guztiak ez dira nire errealitatean existitzen, eta berari eskerrak nabil ikasten.

Astean behin batzen zarete berriketan egiteko. Zeri buruz berba egiten duzue?

J.B.: Bizenta Mogel Bibliotekan hasi ginen batzen, hango eremu

batean. Akorduan daukat Maryoryk koaderno bat ekartzen zuela apunteak hartzeko asmoz. Baina gure topaketak eguerdi partean izaten direnez, denbora igarota, aproposagoa ikusten genuen kafetegiren batean elkartzea. Eta hala, Jai Berrira edo Duzu kafetegira joaten gara. Egunerokotasunari buruz berba egiten dugu, gure bizimoduari buruz, aktibitatei buruz. Euskal kultura, ohiturak, kuadrillak... horiek ditugu mintzagai. Eta txangoak ere izaten ditugu ahotan, Maryoryri asko gustatzen zaio-eta bizikletan ibiltzea. Alde horretatik, Durangaldeari buruz ere berba egiten dugu.

M.E.: Bai, Julenek lekuak ezagutzeko eta bisitatzeko proposamen ugari egin dit. Adibidez, bizikleta hartu eta Axpera joatekoa. Aurreko batean han izan nintzen. Egia esanda, egunerokotasunari buruz berba egiten dugu, eta hor, apurka-apurka, euskarazko berba asko irteten da. Juleni eskerrak berba mordoa ezagutzen eta ulertzen nabil. Pentsa! Nire abizenak zer esan gura zuen ere ez nekien. Abizena euskalduna zela banekien, baina Julenek eman zidan esanguraren berri. Azken finean, honek guzti honek elkar eragiteko balio du. Biok ikasten dugu.

Zuk, Julen, zer beste ikasi duzu Maryorygaz?

J.B.: Gogoan dut berak kontaturiko anekdota bat. Euskal Herrira etorritakoan harrিতuta utzi zuen lehenengo esperientzia kontatu zidan. Supermerkatu batean zegoela, euskaldunok haserre bizi ote ginen galdetu zion kutzako beharginari. Kolonbian etengabe dabilta-eta elkar agurtzen, elkarri eskerrak ematen. Hemen, ostera, nahiz eta haserre bizi ez, horrelakoak


gara. Beharbada itxiagoak, eta gehiago kostatzen zaigu elkar ezagutzeko. Kolonbian, ostera, zabalagoak dira.

M.E.: Bai. Nire kontrako jarrerarik ez zegoela ulertu behar izan nuen. Izateko beste modu bat duzuela, ez besterik. Beharbada desberdintasun kultural horiek dira ulertu beharrekoak. Kuadrillen kontzeptua zer den ere ikasi dut. Oso interesgarria deritot. Oso lagun talde batuak dira; gustatu zait kuadrilletan dena partekatze eta elkar laguntzeko dagoen joera hori.


Urte bi hauetan zelan lagundu dizu bikote linguistikoaren zati izateak?

M.E.: Migratzaileok leku berri batera heltzen garenean, hartu-emanak eginez hasten gara. Eta abiapuntu lez, gure komunitate bereko kideekin batzea izaten da ohikoena. Bikote linguistikoaren programak, ostera, esparrua zabaltzen laguntzen du. Herritarrak eta beste migratzaile batzuk ezagutzen zoaz. Adibidez, Julenagaz euskal kulturaz ikasteko programan parte hartzen dut, baina errumaniarra den emakume batez ere esku hartzen dut, hari gaztelania erakutsita. Espazio honek integratzeak tresnak ematen dizkizu; bestela, arriskua dago zure komunitatekoekin bakarrik gertatzeko. Baina hona etorri gara eta gizartean integratzea inportantea delakoan nago.


"MIGRATZAILEEK DITUZTEN OZTOPOAK EZ DAUDE GURE ERREALITATEAN; ASKO NABIL IKASTEN"







Zeren bila zabilta?



Galdetu eta AMARI Durango-k herriko negozioetan aurkitzen lagunduko dizu



Gaztetxea "arriskuan" dagoela ohartarazi dute

Durangoko Udalak Correoseko eraikin zaharra "berehala husteko" kautelazko neurriak eskatu dituela jakin ondoren, Gazte Asanbladak negozioazio mahaiagaz jarraitzea eta taldeko kide biren aurkako salaketak kentzea exijitu dio udalari

A. Basauri DURANGO

Correoseko eraikin zaharra okupatu eta lau egunera, Gazte Asanbladak ohartarazi du Durangoko Gaztetxea "arriskuan" dagoela. Gazte Asanblada "indartsu" badago kalean egindako "borroka-gaitik" dela gogorarazi ondoren, Gaztetxearen alde "borrokatzera" eta hurrengo egunetan egingo dituzten deialdiak batzera deitu dute gazteek. Udalak asteon jakinarazi du erakina "berehala husteko" kautelazko neurriak eskatu dituela, eraikuntzaren "egoera larriagaitik".

Gazte Asanbladak nabarmendu du "egoera zaurgarria" bizi dutela, herritarren eta inguruko gazte asanbladen babesa "ezinbestekoa" dela. Martitzenean udaltzaingoa Gaztetxera bertaratu zela azaldu dute gazteek. "Asanbladako kide bat identifikatu zuten, eta sarbide kontrol bat ipini. Inori sartzenean ez diotela azaldu ziguten, eta udalak irtenarazte prozedura bide legal



Gazte Asanbladak joan zen martitzenean egindako agerraldia.

etik abiatzeko asmoa zuela. Bestalde, Mireia Elkoroiribe alkateak asanbladakide biren aurka salaketa ipini duela jakin dugu, eta Gaztetxearen proiektuaren bultzatzaileak izatea egotzi diela", adierazi dute. Taldeak

salaketa horiek kentzea eta negozioazio mahaiagaz jarraitzea eskatu dio udalari.

"Okupazioa ez da bidea"

Udalak dio okupazioa ez dela bidea eta elkarrizketara deitu

ditu gazteak: "Hasieratik agertu gara prest Durangon Gaztetxe bat sortzeko mugimendua bultzatzen duten gazteekin berba egin eta irtenbide bat bilatzeko". Ildo horretan, abenduaren 2an batzarra egin zutela azaldu dute: "Euren proiektua garatzeko gune bat izan dezaten lanean jarraitzea erabaki zen bertan. Hala ere, gazteek Correoseko eraikin zaharra okupatu dute, alde bakarreko erabakia hartuta".

Udal arduradunek nabarmendu dute Correoseko eraikina eraisteko prozesuan dagoela. "Ezin da birgaitu, eta, horregaitik, ez zaio mantentze-lanik egin. Txosten teknikoaren arabera, eraikina ez dago inolako erabilerarako baimenduta, eta arriskutsua da sartzenean denarentzat. Arrisku larriak daude. Barandatik edo igogailuaren itxi bako zuloatik jausteko arriskua, tarteko. Eraikina berehala hustu behar da, segurtasuna bermatzeko", argitu dute.

Gazteen interesen alde

Durangon dauden "hutsuneak" betetzea eta herriko gazteen "interesen alde borrokatzea" du helburu Gaztetxeak. Asanbladak esan du Correosen eraikin zaharrak 10 gela zabal eta areto lez erabili daitekeen espazio zabal bat dituela. Bertan, "hainbat adarretako proiektua" garatu gura dute. Aisialdia, artea, kirola, ikasketak eta lan politikoa batu gura dituzte.

Udalak argiztapena hobetuko du Tabirako kirolgunean

A.B. Durango

Durangoko Udalak martxan ipini du Tabirako kirolguneko futbol zelaiko argiztapena berriketarako lizitazio prozesua. Instalazioak modernizatzea, energia eraginkortasuna optimizatzea eta egungo estandarren arabeko argitasun maila bermatzea du helburu udalak.

Gaur egungo proiektoreen ordez LED teknologia ipintzea aurreikusi du udalak. "Horrela, argi-maila igo egingo da eta %60ko argi-uniformetasuna bermatuko da. Gainera, kontrol integraleko sistema bat txertatuko da, piztea urrutitik kudeatzeko, argi intentsitatea erregulatzeko eta hainbat beharrezko ageritokiak sortzeko", zehaztu zuten. Udalak 94.277 euro erabiliko ditu lan horiek egiteko.

Udalak datorren abenduaren 26a baino lehenago esleituko du kontratua. Eskaintzarik onenak 16 asteko epea izango du lanak egiteko.

Otamotzena Auzoguneako taberna hartzeko deialdia

A.B. Durango

Durangoko Udalak martxan ipini du, hirugarrenez, Otamotzena Auzogunean dagoen taberna alokatzeko eta ustiatzeko lizitazio prozesua. Hasieran, emakida-kontratuak urtebeteko iraupena izango du, eta urtean behin luzatu ahal izango da, gehienez ere hiru urtez. Horrela jakinarazi dute udal arduradunek. Orain dela gutxi berri-tu dute taberna eta berehala martxan ipintzeko moduan dago hornituta.

Hilean, 600 euroko kanona

Tabernaren kudeaketarako esleipenak 600 euroko gutxienezko kanona izango du, udal arduradunek azaldu dutenez. Interesak dutenek datorren urtarri-laren 3ra bitartean dute aukera euren proposamen ekonomikoak aurkezteko. Otamotzena Auzoguneak eskatuta egin du hirugarren deialdia Durangoko Udalak, aurreko biak hutsik geratu eta gero.

Trenbidea zena Bide Berde bihurtzeko lanak hasi dituzte

Trenbide eta Untzillatx kaleen hiri-ingurunean hasi dituzte lanak, trenbide zaharraren trazadura integratzeko

A.B. DURANGO

Durangoko trenbide zaharra Bide Berde bihurtzeko lanak hasi dituzte. Proiektuaren 1. eta 3. faseko obrekin hasi dira, Trenbide eta Untzillatx kaleen hiri-ingurunean trenbide zaharraren trazadura integratzeko dutenak. Udalak 118.580 euro inbertituko ditu guztira, eta lanak otsailean amaitzea aurreikusi dute. Bigarren faseko lanak —1,15 milioi euroko aurrekontua izango dute—, uda ostean hastea gura dute udal arduradunek.

Herria zatitu duen trenbidea

Hainbat hamarkadatan herria zatitu duen gainazaleko trenbide-trazadura ez da erabiltzen 2012ko abendutik, lurperatutako trena martxan ipini zenetik. Joan zen astean hasitako lanek herriaren eremu biak batzea dute helburu, "hiri-kohesioa sustatu eta espazio publikoen kalitatea hobetzeko". Mireia Elkoroiribe alkatearen berbetan "poztekoa" da lanak egiten hasi ahal izatea. Udalak joan zen apirilean sinatu zuen lagapen-hitzarmena ETSgaz. Proiektua



Durangoko udal arduradunek agerraldia egin dute obrak azaltzeko.

idatzi ondoren, irailean ekin zioten lizitazio prozesuari.

Trenbidea ixteko horma zaharra eta geralekuaren zolata kenduko dituzte Untzillatx kalean, eta espazioa hiri-bilbean integratuko da. Berdegune berri bat

egin dute —2.260 metro koadrokoa—, hiri-altzari "modernoak" ipiniko dituzte eta argiteria publikoa hobetuko dute, alkateak azaldu duenez. Bide Berdeak gune zabala eskainiko du oinezkoentzat eta bizikletentzat.



Mireia Elkoroiribe alkatea, Josune Escota zinegotzia eta Jesica Ruiz alkateordea.

Durangoko gobernu taldeak aurrekontua adostu du PPgaz

Durangok ia 43 milioi euroko aurrekontua izango du 2025ean, EAJk, PSE-EEK eta PPK akordioa lotu ondoren

A.B. DURANGO

Durangoko gobernu taldeak aurrrera aterako du 2025erako udal aurrekontua. PPren "babesari" eskerrak lortuko du, eta "EH Bilduk udal kontuak babesteari uko egin eta gero", esan dutenez. EAJk eta PSE-EEK nabarmendu dute "proiektu eta zerbitzu publiko garrantzitsuak" garatzeko aukera izango dutela ia 43 milioi euroko aurrekontuagaz. PPren lau zuzen-keta onartu dituzte (127.000 euro).

EH Bilduk esan du udal gobernuak "beste aukera bat" galdu duela "norabide politikoa aldatu" eta herritarren "benetako beha-

rrizanei" erantzuteko. Eta argitu du PPgaz ados ipinita bateragarria ez den "akordio integral" bat aurkeztu dutela, "zuzenketetatik haratago". Trukean, udal kontuak onartzea erraztuko lukete absentzioagaz. "Azkenean, PPgaz akordioa lotzea erabaki dute", gaineratu du talde subiranistak. Uri Buru Batzarrak "ulertezina" deritzo EH Bilduren jokaerari. "Ekarpenak guztiz jasotzen zituen akordioa alboratu du, erakutsita gurago duela estrategia politikari eutsi herritarren interesak eta proiektuak lehenetsi beharrean", esan du EAJk.

'Ibiltari' martxa solidarioa egingo dute Durangon, domekan

Baturiko dirua Valentziako hondamendian eta Libanoko bonbardaketetan kalteturikoei laguntzera bideratuko dute

A.B. DURANGO

'Ibiltari' martxa solidarioak hirugarren aldia egingo du domekan. Durangoko San Jose Jesuitak ikastetxeak eta Alboan gobernu kanpoko erakundeak bultzaturiko ekimena da eta Valentziako hondamendian eta Libanoko bonbardaketetan kalteturikoei lagundu gura diete oraingo honetan.

Zazpi kilometroko martxa izango da eta Ezkurdin hasiko da, 11:00etan. San Andres auzora igo, Larrinagatzutik jaitsi, eta Ezkurdin amaituko da. Mar-

txa hasi baino ordu erdi lehenago agertzeko eskatu dute antolatzaileek, dortsalak banatu eta dinamizatzaile bategaz beroketa ariketak egiteko. Izen ematea ibiltari.alboan.org webgunean egin daiteke, 10 euroren truke; 12 urtetik beherakoentzat 5 euro da. Dena dela, egunean bertan ere eman daiteke izena. Antolatzaileek gogoratu dute martxan parte hartu barik ere egin daitekeela diru ekarpena, webguneko '0 dortsala' aukeraren gainean klikatuta. Antolatzaileek parte hartzera deitu dute.

Arreta psikologikorako laguntzak gazteentzat

Zaldibarko Udalak 9.000 euroko diru laguntza prestatu du 16tik 35 urtera bitarteko gazteen arreta psikologikoa bultzatzeko. Gazte bakoitzeko hamar saio lagunduko ditu gehienez, eta egitasmoari segida emango dio 2025eko udal aurrekontuak baliatuta

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak kanpaina berri bat ipini du martxan: herriko gazteen arreta psikologikoa lagunduko du diruz; hain zuzen ere, 16tik 35 urtera bitarteko gazteei lagunduko diete. Udalak kontsulta bakoitzeko prezioaren %80 hartuko du bere gain, saio bakoitzeko 52 euroko mugagaz. Era berean, onuradun bakoitzeko, 10 saio lagunduko ditu gehienez. Diru laguntzak aurten egindako arreta saioengaitik izango dira. Edozelan ere, udalak aurreratu du 2025ean jarraipena emango diotela egitasmoari; izan ere, datorren urteko aurrekon-

tuari begira diru partida bat gorde dute arreta psikologikoa-gazteentzako. Beste 9.000 euro erabiliko ditu helburu horretarako. Eneritz Azpitarte alkateak gogoratu duenez, arreta psikologikoa-gazteentzako kanpaina "2024ko aurrekontu parte hartzaileetan sortu zen". Denbora tarte honetan, udala "kanpainako oinarriak zehazten" ibili da. Azpitartek "garrantzitsua" deritzo "gazterien buru-osasuna zaintzeari".

Eskaerak eta baldintzak

Gazteek udaleko bulegoetan eskatu ditzakete laguntzak, baita bide telematikoa erabi-

lita ere, Zaldibarko Udalaren web atariaren bitartez (zaldibar.eus). Eskatzaileek hainbat baldintza bete beharko dute diru laguntzak jasotzeko. Hasteko, gazteek Zaldibarren erroldatuta egon beharko dute; laguntzak norbanako legez, familia-unitate legez edo familia ugari legez eskatu ahal izango dira; kontsultak psikologia kliniko edo sanitarioko espezialistek eginikoak izan beharko direla iragarri dute. Eskabideak egiteko epea urtarrilaren 31n agortuko da.

Baldintzen xehetasun guztiak Zaldibarko Udalaren atarian kontsultatu daitezke.



Baserritarren azokaren edizio bat.

Baserri azokaren edizio berri bat Garain, hilaren 22an

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko plazak neguko azokaren beste edizio bat hartuko du datorren domekan, abenduak 22. Eskualdeko baserritarrak 11:00etan hasiko dira produktuak saltzen; bisitariak tokiko elikagaiak eskuratu ahal izango dituzte: ortuariak, gazta, ogia eta edariak, besteak beste. Garaiko Udalak eta Urkiola Landa Garapenak antolatu dute azoka.

Txakurrek ardiei egindako erasoak kezka iturri

Landa eremuetan dabilzan ardiek geroago eta eraso gehiago jasan dituzte txakurrengandik Durangaldean azken urteetan. EHNE sindikatuak esan du txakurrak heztea ezinbestekoa dela eta txakurren jabeek ere "egoeraz jabetu" behar dutela

A.B. DURANGALDEA

Mendian dabilzan ardiek geroago eta eraso gehiago jasaten dute txakurrengandik Bizkaian. EHNE sindikatuko Alberto Llonaren berbetan, geroago eta baserritar gehiago joan zaie euren animaliei eraso egin dielako kezka. "Herriguneetako txakur gehiago joaten da orain landa eremuetara, eta ardurata zuten, azaldu zuten.

Durangaldea ez da salbuespena. "Aurten bosgarren aldia da inoren txakurrek gure ardiak zauritu edo hil dituztena gurean. Azken hiru erasoak hile eta erdian gertatu dira", kexatu da eskualdeko baserritar bat. "Arazo horri era baketsuan aurre egiten ahalegindu garen arren, badi-rudi ez dela nahikoa", gaineratu du. Horrelako egoeren aurrean, txakurren jabeek "askotan" erakutsitako "utzikeria" harri-duraz hartu duela azpimarratu du. "Guri sekulako egonezina eragiten digu horrek. Imaginatu



Artaldea Mendiola aldean.

89 urte dituen amona, erratz zahar bat eskuan, ardi baten sama txakurraren hortzetatik askatzeko. Azken urteotan bost bider bizi behar izan dugu horrelakoren bat!", esan du.

Llonak dio arazoak ez duela konponbide erraza: "Txakurraren jabea eta kaltetua ados

jarriz gero, aseguruagaz konpontzen da arazoa. Hala ere, txakur batez goazenean non gauden jakin behar dugu, eta egoeraren arabera zeintzuk neurri hartu. Txakurrak heztea ezinbestekoa da, baina horien jabeek egoeraz jabetu behar dute".



lazko azoka. OTXANDIOKO UDALA

Gabonetako azokak 24 ekoizle eta 14 artisau batuko ditu Otxandion

Azoka abenduaren 15ean izango da, plaza nagusian. Urrezko aizkolari koparen finalak ere jokatu dira

A.B. OTXANDIO

Gabonetako azoka egingo dute domekan Otxandion. Guztira, 24 ekoizle eta 14 artisau batuko dira plaza nagusian ipiniko dituzten erakustokietan. Barazkiak, ogia, zukuak, marmelada, gazta... baserriko askotariko produktuak erakutsi eta salduko dituzte bertan, 10:00etatik 15:00etara bitartean. Horrez gainera, Aretxabaletako Iker Gabilondok garai bateko errementarien lana erakutsiko du.

Urrezko Aizkolarien Kopako finalerdiak ikusteko aukera ere egongo da. Jokin Urretabizkaia

'Basozabal', Hodei Ezpeleta, Eneko Otaño eta Ibai Soroa arituko dira. Saioa 12:00etan hasiko da. Era berean, Binakako Aizkolari Kopa jokatu dute, bai gazte mailan bai emakumeen mailan: Oier Mitxelena eta Aitor Saralegi Isidro Velascoren eta Kimetz Alzolaren aurka arituko dira; eta Laiene Pikabea eta Oihane Fernandez de Barrena Nerea Sorondoren eta Irati Astondoaren kontra. Olaia Esnaola eta Udane Ostolaza Binakako Harrijasotze Kopan lehiatuko dira. Urbiribil dultzainero taldeak berotuko du jai giroa, eguerdian hasita.

Sariak zozketan, Durangaldeko elikagaiak erosten dituztenentzat

Durangoko merkatu plazan erosten dutenek 100 euroko oztara baten zozketan parte hartuko dute zapatuero



Durangoko baserritarren merkatua.

Ekaitz Herrera DURANGALDEA

Urkiola Landa Garapenak egitasmo bi ipini ditu martxan eskualdeko elikagaien erosketa sustatzeko: batetik, Durangoko merkatu plazan erosten dutenek 100 euroko oztara baten zozketan parte hartuko dute zapatuero-zapatuero, urtea amaitu arte. Bestetik, furgoneta bat eskualdeko produktuak saltzen ibili da herririk herri, garai bateko saltzaille ibiltarien modura, baserriko produktuak herritarrengana eramanda. Furgonetak gaur egingo du bere azken irteera, Erorriora. Saltoki ibiltaria 13:00ak arte egongo da herriko plazaren ondoko aparkalekuan. Ekintza biek tokiko produktuen salmenta sustatu gura dute, herritarrek merkatura joatera bultzatuta eta tokiko produktuekiko aurreiritziei erantzunda.

160 bat arbola landatuko dituzte Laixiar zelaian, domekan

Maiztegiko Guraso Elkarteak, Zaldai mendi taldeak eta Iurretako Kofradien Batzordeak antolatu dute jarduera

A.B. IURRETA

Iurretan arbola landaketa egingo dute domekan, abenduaren 15ean. Maiztegi herri eskolako Guraso Elkarteak, Zaldai Mendi Taldeak eta Iurretako Kofradien Batzordeak bultzatu dute ekimena, eta herritarrek parte hartzeraz deitu dituzte. Aita San Migel plazan egin dute elkartzeko hitzordua, domekan, 09:00etan.

Antolatzaileek azaldu dutenez, arbolak Laixiar zelaian landatuko dituzte. 160 zuhaitz landatuko dituzte, gutxi gorabehera (gurbitzak, gerezioondoak, elorri

beltzak, makatzak, gaztainondoak eta intxaurreondoak). Landaketa 10:00etan hasiko da, eta, lanak amaitu ondoren, luntxa prestatuko dute ekimenean parte hartu dutenentzat (euria eginez gero, San Markoko txokoan batuko dira). Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, gura duenak bere lanabesak eraman ditzake.

Arbola landaketan parte hartu gura duenak honako helbide elektronikora idaztea eskatu dute antolatzaileek: laixiarzelai@gmail.com.

GURE
GARIA

GURE
OGIA

ORAIN
OGI
INTEGRALA
ere bai

EUSKAL OGIA

GURE GARIA, GURE OGIA
NUESTRO TRIGO, NUESTRO PAN



EUSKO LABEL GARIAZ EGINAKO OGIAN
ESPEZIALIZATUTAKO TOKIA
ESTABLECIMIENTO ESPECIALIZADO EN
PAN ELABORADO CON TRIGO EUSKO LABEL

ABADIÑO

GORETTI - Ferialeku Plaza, 1

AMOREBIETA-ETXANO

IRAUNKOR KONTSUMO TALDEA - Dudea Auzoa, 7

APATAMONASTERIO

KIOSKO - Euskalerría, 3
LA KOMPRA - Euskalerría, 3

ARRAZOLA

PANARRA - Artekale, 9

DURANGO

PANARRA - Andra Mari, 3

ELORRIO

MARRUBI - Errebonbilo
FRUTERÍA ELORRIO - Erreka, 21

ZORNOTZA

BERTOKO OGIA - Gudari, 8

hazi

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA BARRAPIA,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA GALIA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

Karta jokoak, nerabe eta adinekoen arteko zubi

Iazko ikasturtean lez, Berrizko Institututik adinekoen eta ikasleen arteko hartu-emanan sustatu guran dabilta; tute txapelketa antolatu dute aurten, eta finalaurrekoak eta finala abenduaren 16an izango dira, Berrizko Jubilatuen Elkartearen egoitzan

A. M. BERRIZ

"Zer egin Berrizko nerabeak eta jubilatuen elkartzeko?". Iazko ikasturtean, Berrizko BHI Institututuko irakasleak buruari eragiten hasi ziren, ea zelan batu itxuraz urruti dauden belaunaldiak. "Argi genuen institutua herriaren parte eta herria erakitzeke beste baliabide bat bihurtu behar zela", argitu dute irakasleek. Talde biak batzeko modurik egokiena karta-jokoa zela erabaki zuten, tutea hain zuzen ere. "Jauzi generazional izugarria dago. Hala ere, argi dago alde biek badutela zer ikusi eta zer ikasi elkarrengandik. Alde biak batzeko proiektu erakargarri eta erraz bat aurkitzean datza gakoa. Gure ikasleek ez dakite karta-jokoan, eta nor hobeto jubilatuen bano jokoan erakusteko?", pentsatu zuten. Iazko Aste Santura bitartean, 4. DBHko ikasleek eta dozena bat jubilatuek tute ikastaroa hasi zuten, baina esperientzia ez zen horretara mugatu. Gerora,



Jubilatuak eta ikasleak, elkarregaz.

sendabelarrak aztertu eta identifikatzeko, eta ukenduak egiteko tailerra ere egin zuten. "Alde biek guztiz positibotzat hartu dute esperientzia", argitu dute. Aurtengo ikasturtean, DBHko 3. mailako ikasleak eta ia hogei jubila-

tu tutean ikasten dabilta. Eta txapelketa bat ere antolatu dute; abenduaren 16an finalerdiak eta finala jokatu dituzte, Berrizko Jubilatuen Elkartearen. Jokoak belaunaldi bi batu eta gero, lehiak ez ditu banatuko.



Berrizko azokako artxiboko irudia.

Berriztu sortzaileen azoka egingo dute, zapatuan, Berrizen

Abenduaren 14an egingo dute azoka, 10:00etatik 14:30era bitartean, Berrizko probalekuan

A. M. BERRIZ

Zapatu goizean, abenduak 14, Berriztu Sortzaileen Azokaren beste edizio bat egingo dute Berrizen, 10:00etatik 14:30era. Sortzaileen lanak ezagutarazteko antolatzen dute azoka hau. "Azokagaz, euren lanak eta proposamenak herritarren artean ezagutarazteko aukera eman gura diegu Berrizko sortzaileei, euren ogibidea izan zein ez", azaldu dute antolatzaileek. Aurtengo edizio honetan, hamabi sortzailek parte hartuko dute Berriztu azokan. "Aurreko urteetan Berriztu

azokan izan dugun parte hartzea baino handiagoa izango da aurtengoa", argitu dute. 10:30etik aurrera, Usue Egia ilustratzaile durangarrak ere parte hartuko du, eta, ondoren, 13:00etan, Amaia Santamariak eta Jokin Osoak zuzeneko musika emanaldia egingo dute. Bestelakoan, musikagaz girotuko dute gunea. "Sortzaileek elkar ezagutzea ere gura dugu, euren lanak herritarrei erakusteko aukera edukitzeaz gainera", azaldu dute antolatzaileek. Berrizko Udalak babestu egin du ekimena.

900 ikaslek parte hartu dute 'Eskolatik antzokira'-n

Gazteak antzerkira eta euskarara erakartzeko helburua duen kanpaina arrakastatsua izan da, beste behin ere



'Zimurren artean kontukantari'.

A. M. ELORRIO

Arriolak 22 urte daramatza Elorrioko Udalaren babesagaz 'Eskolatik antzokira' programa sustatzen; udalak, ohar baten bitartez, aurren 900 bat ikaslek parte hartu dutela jakinarazi du. Euskarazko hiru antzezlan eskaintzen dituzte ikasturte bakoitzean, adinaren arabera banatuta. Aurten, *Kontukantari 3*, zimurren artean *kontukantari* (4tik 7 urtera artekoentzat), *Mundua pitzuta dago, baina hantxe gabilta oinez* (8tik 11 urtera artekoentzat) eta *Miñan* (12tik 16 urtera artekoentzat) obrak taularatu dituzte. "3tik 9 urtera arteko umeek antzerkira eta zinemara joateko ohitura dute, etxeokokin zein lagunekin, baina hortik aurrera, 25-30 urte bitartekoak, oso bakanetan joaten dira", azaldu dute udal ordezkariak.

Larreko autokarabanentzako aparkalekua eraikitzen hasi dira

Zornotzako Larrea auzoan hasi dira autokarabanentzako aparkalekurako lanak; 10 plaza izango ditu

A. M. ZORNOTZA

Zornotzan, autokarabanentzako hamar plaza eta oinarrizko zerbitzuak izango dituen aparkalekua eraikitzen hasi dira Larrea auzoan. Obrak, oinarrizko zerbitzuen instalazioa barne, 2025eko udaberrirako amaitzea aurreikusten dute. Zornotzako Udalaren esanetan, autokarabanen turismoaren gorakadari erantzuna emateko diseinatu dute aparkalekua. Iraupen laburreko egonaldietarako egokituko dute eta guztiz irisgarria izango da; horrez

gainera, berdegunez inguraturiko atsedengune bat ere aurreikusten dute, ingurune lasaia eskaintzeko asmoz. Udalak aurreikusten duen inbertsioa 100.000 euro ingurukoa da.

Bestalde, Zornotzako Udalak Amorebonoak aprobetxatzeko azken egunak direla gogoratu du ohar baten bitartez: "Kanpaina abenduaren 20an amaituko da eta dagoeneko bonurik gehienak erabili diren arren, oraindino eskuragarri daudenak erabiltzeko dei egiten diegu herritarrei".

OSASUN GIDA

 **Podologia**
PSE: 214/06



ADINARA URRETA JAINAGA
DINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**
PSE: 162/13


keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
• JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
• IKUSMENAREN ENTREGAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEKJAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
• SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KURJOL IKUSMENA • GARUNeko LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
• ORTO-KETA MIOPIAren KONTROLA
Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel: 946 225 099
www.keinuoptometrizentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22


pröktós.clinic
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13


ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia
Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Solo pertsonalizatuak dira, talde txikietan.
Trañobarren 13, 4. blokea beheko eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16


pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13


clinicadental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (TERO) ETA CBCT
(Muruetatorre, 2C blokea, beheko - 48200 Durango)
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

Aurora Julià
HOMEOPATIA • NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA
Umeak - Helduak - Nagusiak
Ordua hartzeko:
946 204 218
Txanporta Plaza, beheko - Abadiño
www.aurorahomeopatia.eus



 **Psikologia**


gure
Zure bidelagun
Haur, nerabe eta helduentzat
• ikasketa-arazoak, arazotasunak eta estresa, depresioa, eduki eta ikasketen sartzeunak, arazo praktikoak, familia-arazoak, pertsona-arazoak, eskaintza kognitiboa, arimena, hilkuntza, arazotasun kognitiboa, elkarburu-pertsona, diskalkulia eta besteak.
623 173 181 - 613 038 933
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**
PSE: 26/22


viteri
HORTZ-KLINIKA
Klinika batean hainbat zerekin
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.
Dokumentuak
Astelehenetik ostirara: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larrietatik: 10:00tik hasita
944 14 80 36 | 626 18 30 30
Arkazubi etx. b. dea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Hotel Balneario Areatzan gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.



Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Gabonetako argiak Axpen.

Atxondoko Udalak Gabonetako argi berriak ipini ditu aurten

Gabonetako argiei ikutu berri eta berezi bat emanez, herriko elementu esanguratsuak argiztatu dituzte

J.D. ATXONDO

Aurten, Atxondoko Udalak beste ikutu bat eman dio Gabonetako argiztapenari, eta udalerrira osatzen duten Apatamonasterio, Arrazola, Axpe eta Santixako elementu adierazgarriak apaintzeko apustua egin dute.

Askotariko elementuak

Aurten arte kaleak ohiko girlandekin apaindu dituzte, baina aurten espazio enblematikoak nabarmentzea erabaki dute, hala nola Axpeko frontoiaren aurreko zuhaitz handia, Santixako ermitaren aurreko parkean da-

goen zuhaitz ilara eta Apatako biribilgunea. Hirugarren horretan, gorantz doan argi-kono batek efektu ikusgarria sortzen du herriaren sarreran. Argiztapenok, herriaren ikuspegi berri bat emateaz batera, auzo bakoitzeko zenbait gune eta elementu nabarmen balioetsiko dituzte.

Udal arduradunek jakinarazi dutenez, aurten alokatu egin dituzte argiak, eta enpresa batek ipini ditu herrian zehar. Ekinenak harrera ona badu, hurrengo urteei begira argia erostea baloratuko dute.

Bigarren eskuko eta truke azoka, etzi, Arrazolan

Amillena Bentako kideek antolatu dute ekimena. Azokaren ondoren, baba-jana egingo dute

J.D. ATXONDO

Domeka honetan bigarren eskuko eta truke azoka egingo dute Arrazolan, Amillena Bentako kideek antolatuta.

Azoka 11:30etik 15:00etara izango da eta antolatzaileek bertan parte hartzeko deia egin diete herritarrei. Azokaren ondoren, baba-jana egingo dute, Arrazolan bertan. Bazkarira joan gura dutenek aurrez izena eman beharko dute, 946 278 907 telefono zenbakira deituta. Gaur —abenduak 13— da azken eguna baba-janean izena emateko.

Bigarren eskuko eta truke azokaz gainera, Amillena Bentako kideek beste hainbat ekimen antolatu dute astean zehar egiteko, aurretik izena eman dutenentzat. Sukaldea kolektibizatzekeo tailerragaz hasi zuten astea, eta piper beteak prestatu zituzten bertan. Gaurko, Salseo gaua antolatu dutela iragarri dute.

WhatsApp etekina ateratzen ikasteko ikastaroa Mañarian

J.D. MAÑARIA

Mañariko abenduko agendaren barruan hainbat ekimen dago herritarren gozagarri. Euretariko batean WhatsApp mezularitza aplikazioa erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa abenduaren 18tik 20ra izango da, datorren asteko eguaztenetik barikura. Ordutegia 11:00etatik 13:00etara da eta liburategian emango dute. Ikastaroa euskaraz izango da. Izen ematea udaletxean egin daiteke.

Asteon beste ikastaro bat hasi da eta datorren martitzenera arte iraungo du. Kasu honetan, Android sistema eragileagaz lan egiten duten gailuetan trebatzen dabilta parte hartzaileak.

'Herri txiki, infernu handi' saioa egiteko proposamena Izurtzari

Parte hartzeko interesa dutenek gasolindegian edo tabernan dauden zerrendetan eman dezakete izena

J.D. IZURTZA

ETBko *Herri txiki, infernu handi* telebista saioak Durangaldeko hainbat herri bisitatu du azken urteetan, eta baliteke hurrengo bisita Izurtzara izatea. Proposamena egin dute behinik behin. Argitu dute zortzi bat lagun beharko dituztela saioan parte hartzeko. Interesa dutenek Izurtzako tabernan, gasolindegian eta udaletxean egongo diren zerrendetan eman ditzakete izena eta kontaktua. Gero, programako kideak ipiniko lirakeke eurekin hartu-emanetan. Hala jaki-

narazi du Izurtzako Udalak bando batean. Lehenengo, Izurtzako herritarrekin grabazioak egingo lituzkete, eta behin horiek eginda, emanaldi bat egingo lukete herrian, Mikel Pagadik eta Miren Nogalesek aurkeztuta.

Durangaldean, Zaldibar, Iurreta, Berriz, Mallabia, Mañaria, Atxondo, Otxandio, Elorrio eta Abadiño herrietan, eta Zornotzako Etxano eta Durangoko Tabira auzoetan egin dituzte grabazioak. Hau da, Izurtza eta Garai herriak baino ez dira falta.



Alfredo Baeschlin kalea.

Ibilgailuen matrikulak irakurtzeko gailuak ipiniko dituzte Abadiñon

Herriko hiru gunetan ipiniko dituzte gailuak. "Oinezkoen segurtasuna bermatzea da helburua", dio udalak

M.Zuazubiskar ABADIÑO

Abadiñoko Udalak lehiaketa publikora atera du ibilgailuen matrikulak irakurtzeko balioko duen zerbitzuaren kudeaketa. Udaletik jakinarazi dutenez, trafiko ordenantzen aldaketetan herrigunetik 3,5 tonatik gorako kamioiak igarotzea debekatzea eta Zeletabe eta Txinurrisolo kaleetan ordu jakin batzuetan eta ibilgailu jakin batzuek erabiltzea arautu dute. Beraz, gune horietan segurtasuna hobetzeko, matrikulak irakurtzen dituzten gailuak ipiniko dituzte.

Alde batetik, maiatzeko herri galdeketa herritarrek Zeletabe kalea ordu jakin batzuetan zabaltzearen alde egin zutela azaldu dute udaletik. Eta, bestetik, Txinurrisoloko auzokideekin eta jarduera ekonomikoa bertan egiten duten merkatariekin berba egin eta gero, ibilgailuak ordu jakin batzuetan

eta beharizan jakin batzuen gaitik etxeko atarietaraino joatea adostu zutela, haientzat premiazkoa zelako.

Era berean, Zelaieta-Muntsaratz zeharbidetik kamioi astunak igarotzea debekatuta dagoela jakinarazi dute, eta horien joan-etorria kontrolatzeko ere instalatuko dituztela gailuak. Abadiñoko Udalak prentsa oharrean azaldu duenez, inguruko enpresetan sartu-irtenak egin behar dituzten ibilgailu astunak baino ezingo dira Zelaieta-Muntsaratz errepidetik pasatu.

Gailuaren nondik norakoak

Matrikulak irakurtzeko gailuen funtzionamenduari dagokionez, erraza izango dela esan dute. Gailuak matrikulak baino ez dituzte irakurriko, eta gune eta ordutegi zehatz horietan egon ezin daitezkeen ibilgailuak antzemango ditu.

Abenduaren 31ra arte bonu sozialak eskatzeko aukera

Bonuak egoera zaurgarrian dauden abadiñarrentzat dira. Bonuak eskatu egin beharko dira



Bonu sozialak Abadiñoko kiroldegian ere erabili ahal izango dira.

M. Zuazubiskar ABADIÑO

Egoera zaurgarrian dauden herritarrei laguntzeko asmoz, Abadiñoko Udalak bonu sozialak kaleratu ditu. Bonu hauen asmoa herritarrei igerilekuko eta kultur ekitaldietako zerbitzuak erabili ahal izateko laguntza ematea da. "Udal gobernua lanean dabil legegintzaldi osoan inor atzean geratu ez dadin, eta bonu sozialak bide horretan laguntzeko sortu ditugu", azaldu dute. Bonu sozial hauek abenduaren 31ra bitartean eskatu daitezke.

Onuradun bakoitzak urtean bonu bat jasoko du eta honek sarbidea emango dio bai Abadiñoko igerilekura eta baita sarbide mota hori aurreikusita daukaten kultur ekitaldietara ere. Bonuak pertsonalak izango dira eta urtebeteko iraupena izango dute.

Maiatzaren 17an 7 Pago Mendi probaren bigarren edizioa

Mallabiko mendi lasterketako antolatzaileek jakinarazi dute aurrerago berri gehiago iragarriko dutela



7 Pago lasterketaren aurreko edizioa. LUCIA MERUELO

M.Zuazubiskar MALLABIA

Mallabiko 7 Pago mendi lasterketak estreinaldi ezin hobea izan zuen. Iazkoa lehenengo aldia izan zen, maiatzean egin zuten, eta 270 korrikalarik parte hartu zuten bertan. Giro sana eta kiroltasuna izan ziren nagusi.

Proba bi egin zituzten, luzea eta laburra. Proba luzea, Irazu Aranburu mallabitarrak irabazi zuen mutiletan, eta Andrea Garai arabarrak nesketan. Proba laburrean, Aitor Hernandez ermuarra nagusitu zen mutiletan, eta Garazi Sampedro atxondarra nesketan.

Bigarren ediziorako prest

Urte amaieragaz batera, 7 Pago Mendi lasterketako antolatzaileek datorren urteko edizioa noiz izango den iragarri dute: maiatzaren 17an.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA

40 Minutu Rock aurkeztuta

Aurkeztu dute 40 Minutu Rock jaialdiko kartela. Otsailaren 15ean izango da eta sarrerak salgai daude. Nakar, Anestesia, Süne, Tatta&Denso, Toc, Añube, La Txama, Pinpilpussies, Dupla, Kaleko Urdangak, Chuleria Joder, Sukena, La inquisición, Fito Skins, Maruxak, DJ Pezon, Pelma & Luis Seletorrek, Ganibet eta DJ Elepunto taldeek parte hartuko dute.



40 MINUTU ROCK

DURANGALDEA ASTEON

Naiz Market zapatu honetan Durangon

DURANGO Zapatuan, abenduak 14, Naiz Market azokaren XII. edizioa egingo dute Durangon, Ezkurdin. Bertan, 30 bat postu egongo dira eta honako hauek dira parte hartuko duten artisau eta sortzaileetarikoz batzuk: Prima Natura, Arima, Halo, Mxuk, Amaya artisautza, Kebora, Mi Risa Al Viento, Blooming from Silence, Txiki bitxiak, Sinergias Kármicas, Sara Nájera, Mónica Alonso, Bitxik Kool eta GURA.



L'ATELIER

Bost 'Duende sari' L'atelier dantza eskolarentzat

DURANGO Durangoko L'atelier dantza eskolak bost sari lortu zituen abenduaren 5ean Marbellan jokaturako Duende Sarietan. Hauek, hain zuzen ere: Dantza eskolarik onenaren saria, dantza klasiko eta garaikideko eskolarik onena, dantza garaikideko ko-geografaririk onena (Leire Cotoré), dantza garaikideko dantzariarik onena (Markel Sever) eta dantzari gazterik onena (Mara Uriguen).



ANDRAMARI IKASTOLA

Neguko azoka Andramariko ikasleen eskutik

ZORNOTZA Abenduaren 14an, Andramari Zornotzako ikastolak Neguko Azoka egingo du udaletxe plazan. Bertaratzen den edozein herritarrek garaiko produktuak izango ditu erosgai ikasleek atondutako mahaian. 11:00etatik 11:30era bertako produktuen erakusketa egongo da, eta 11:30etik 13:00etara produktuen salmenta.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - Iurreta**
DATUOK BARIKUA EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Gabonak

2024



**BETIEREKO
MAITASUN** 
GABONEI

Zorionak eta urte berri on!

 **EROSKI**
zurekin



GABONAK 2024

ABADIÑO

ABENDUAK 14

Egunean zehar, Gabon kantak De Norte a Sur Taldearen eskutik. Abadiño kaleetan.

ABENDUAK 15

19:00 Antzerkia: 'No hay ladrón que por bien no venga'. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 18

17:00 Ipuin kontalaria. Maite Franko. Udal Mediatekan.

ABENDUAK 20

17:00 'Giro tropikala'. Potxin eta Patxin. Traña-Matienako frontoian.

17:00 Euskal mitologiari buruzko tailerrak. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 21

10:00 Open kickboxing. Probalekuan.

11:00-15:00 Neguko azoka. Traña plazan. Euria eginez gero, Eskolako aterpean (Traña-Matiena)

16:30-18:30 Ur puzgarriak. Udal igerilekuetan.

18:00 Erromeria: Aiko Taldea. Traña plazan.

ABENDUAK 22

10:00-13:30 Gabonetako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoian.

11:30 Gabonetako lasterketa. Muntzaratzen.

ABENDUAK 24

9:00 Astxikira igoera. Txanporta plazan.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Traña-Matienan, Muntzaratzen eta Txanportan.

Muntzaratzera heltzean txokolatada.

ABENDUAK 26

17:00 Pantxintxiketan: Urtaroen bidaia. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 27, 28 ETA 29

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeen Gabonetako Jolaslekua.

0-9 urte probalekuan. 10 urtetik aurrera, Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 28-29

10:00-12:30 / 16:00-18:30 Abadiño Cup IX. Astola futbol zelaian.

ABENDUAK 27

19:30 Gabonetako kontzertua. Raúl del Toro (organoa) eta Javier Lecumberri (oboea). San Trokaz Elizan.

ABENDUAK 30

17:30 Txokolatada eta jolasak. Traña plazan.

URTARRILAK 3

18:00 CTM Traña-Matienako frontoian.

URTARRILAK 4

18:00 ONE musikala (ArteOn Audio). Errota Kultur Etxean.

URTARRILAK 5

18:00 - 20:00 Erregeen kabalkada. Muntzaratzen, Zelaietan eta Traña-Matienan.

ATXONDO

ABENDUAK 20

Jolasak eta txokolatea

ABENDUAK 27

Jokai, euskal mitologiari oinarritutako egur jokoak.

BERRIZ

ABENDUAK 24

09:30 Olentzero eta Mari Domingi, Olakueta plazan auzoetara joateko.

17:30 Olentzero eta Mari Domingi, udaletxetik.

ABENDUAK 27

21:00 'Futbolistok' Zuhaitz Gurrutxagagaz, Berrizko Kultur Etxean.



Abenduak 19

PILOTA PARTIDUAK

21:30ean IV. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (4 ½): Finalerdia Jarraian XXXVII OLAZAR PILOTA TXAPELKETA FINALERDIA

Abenduak 20

IPUIN KONTALARIA OLENTZERO, MARI DOMINGI ETA EUSKAL IPUINAK 17:00etan eta 17:30ean liburutegian; jarraian Mari Domingi eta Olentzerori idatzitako gutunen sarien zozketa.

Abenduak 23

HAUR ANTZERKIA OLENTZEROREN ZAKU MAGIKOA 17:00etan Olazar pilotalekuan

Abenduak 24

BADATOK MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA!!! 12:00etan HARRERA Olazar kalean, 12:30ean ONGI ETORRI jaialditxoak San Martin plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

Abenduak 26

SAN ESTEBAN EGUNA

18:00etatik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

Abenduak 27 eta 28

UMEEN GABONETAKO PARKEA

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Eskolako kiroldegian.

Abenduak 31

12:00etan X. SAN SILVESTRE LASTERKETA. Irteera udaletxeko plazatik.

16:00etan IV. EMAKUMEEN OLAZAR PILOTA TXAPELKETA (4 ½): Finala jarraian XXXVII OLAZAR PILOTA TXAPELKETA FINALAK.

Urtarrilak 1

IGOERA SANTAMARINAZARRERA 10:30ean Talde argazkia tontorrean eta hamarretakoa Olazarren.

Urtarrilak 5

ERREGE MAGOAK



ABENDUAK 28

12:15 'Pedro Alabazan' gabonetako abenturak, Berrizko Kultur Etxean.

19:00 Valentin Lasueneren omenezko kontzertua, San Juan Ebanjelariaren elizan.

ABENDUAK 30

10:00-12:00 Buruhandiak egiteko tailerra (10 urtetik aurrera), Olakueta plazan (euria eginez gero, probalekuan).

12:00-14:00 Buruhandiak egiteko tailerra (6-9 urtekoak), Olakueta plazan.

URTARRILAK 2

11:00-13:00 3D puzzleak eta inpresioa, Olakueta plazan (euria eginez gero, probalekuan).

URTARRILAK 3

12:00-13:30 / 16:00-19:00 Gabonetako haur parkea, Olakueta frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, Komentutik Olakueta plazaraino.

DURANGO

ABENDUAK 20

Ihes-jokoa: Montevideo eta Durangoren arteko senidetza. Turismo Bulegoan, abenduaren 20an hasita.

21:00 Kontzertua: Hamaika ikusteko jaiok + Reder + Alerta. Plateruena kultur aterpean.

ABENDUAK 21

Izotz Pista. Landako Gunean. (abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean).

12:30 Suk-Aldatu sukaldaritza tailerra. Gabonetako mokadu bereziak Saltsaneren eskutik. Merkatu Plazan.

Gabon Jaia. Andra Mariko elizpean.

10:00-20:00 Azoka.

17:00-19:00 Haur tailerrak eta jolasak.

19:00 Ospakizuna Andra Mariko basilikan. (Ant.: *Inurri Skaut Taldea*).

12:00-14:00 Kalejira. Ibilbidea: Plateruen Plaza, Ezkurdi, Andra Mariko elizpea, Alde Zaharra. (Ant.: *Durangoko Orfeoia*).

19:00 Kontzertua. San Agustin kulturgunean. (Ant.: *Tabira Musika Banda*).

Gabon jaia. Madalena auzoan.

17:00 Txokolata.

17:15 Aurpegi margoketa eta DJ show

18:30 Kriskitin Dantza Eskola. Partaideak. Trikitixa.

19:30 Karaokea

20:00 Otzara baten zozketa

21:00 Gabon zaharretako kanpai hotsak.

21:15 DJa. (Ant.: *Auzo Alai elkarte*).

ABENDUAK 22

13:00 Gabonetako Txistu Kontzertua. Durangaldeko txistulariak, abeslariak, hari, metal, pianista eta trikitilaria. San Frantsisko Elizan. (Ant.: *Jaizale Durangaldeko txistulari elkarte*).

19:30 Kontzertua: Matias Sagreras (organoa) eta Juan Ignacio Emme (biolontxelo). San Frantsisko elizan. (Ant.: *Arandoño kultur elkarte*).

ABENDUAK 22 ETA 23

11:00-21:00 Artisautza Azoka. Andra Mariko elizpean. (Ant.: *Eixu artisautza elkarte*).

ABENDUAK 23 ETA 26

11:30-13:30 / 17:00-20:00 Bertako merkataritzaren sariak. Kale antzerki batek girotuta eta erruleta baten bidez, zuzeneko sariak irabazteko aukera herriko saltokietako erosketa tiketak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean. (Ant.: *Dendak Bai merkataritza elkarte*).

ABENDUAK 24

18:30 Olentzero eta Mari Domingi kalejira: Kriskitin Dantza Taldea, Tronperri Dantza Taldea, Txoritxu Alai Dantza Taldea, Inurri Eskaut Taldea, Tabira Musika Banda, B. Ertzilla Musika Banda eta Txistulariak,

Jaizale Txistu Taldea, Durangoko Orfeoia, Ekuadorreko Virgen del Cisne, Herria Auzo Elkarte eta Madalenako Auzo Alai. Ibilbidea: Institutua, F. J. Zumarraga Ermodo kalea Zumalakarregi kalea Ezkurdiko kioskoa. (Eurria bada, Landako Gunean).

ABENDUAK 26

11:30 Jolas Eguna: Joko Erraldoiak. Tabira auzoan. (Laguntzailea: *Tabira auzo elkarte*).

16:00 / 19:00 'Ostirala iritsi da!' (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) umeentzako ikuskizuna. Landako Gunean. **Sarrerak 5 euroan salgai**, abenduaren 17tik aurrera, Durangoko Arte eta Historia Musean.

ABENDUAK 27

17:00 Jolas Eguna: Talo Tailerra. Muruetatorre auzoan. (Laguntzailea: *Muruetatorre auzo elkarte*).

ABENDUAK 28

12:30 Durango Kantari: Egundo i Taldea. Andra Mariko elizpean.

Gabon jaiak Berrizen Egitaraua

Abenduak
24

Olentzero eta Mari Domingi

9:30 Olakueta Plazan, auzotara joalako.

17:30 Olentzero eta Mari Domingirekin Berrizko udaletxetik Olakueta Plazara. *Animatu eta baserritar jantziak etorri!*

Abenduak **Bakarrizketa**

27

21:00 Futbolistik - Zuhaitz Gurrutxaga Berrizko Kultur Etxean

Abenduak
28

12:15 Gabonetako abenturak - Pedro Alabazan Berrizko Kultur Etxean

Organo eta txistu jaialdia Valentin Lasueneren omenez

19:00 Ibilbide prestatua (Ignacio Arakistain eta Peio Irigoien) San Juan Ebanjelariaren elizan.

Abenduak
30

Buruhandiak egiteko tailerra

6-9 urtekoak 12:00-14:00

10 urtetik aurrera 10:00-12:00

Leku: Olakueta plazan. Probalekuan

Urtarrilak
2

3D puzzleak eta inpresioa

Erabaketa / Juntziomendua 6 urtetik aurrera 11:00-13:00

Leku: Olakueta plazan. Probalekuan

Urtarrilak
3

Gabonetako haur parkea

12:00 - 13:30 | 16:00 - 19:00

Olakueta frontoian.

Urtarrilak
5

Errege eguna

17:30 Erregeen kabalkada. Komentutik Olakueta plazaraino. Txokolata.



Zorionak eta Urte Berri On!



19:00 Dantzaro: Lorratz taldea.
Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 28, 29 ETA 30

10:30-14:00 / 16:30-20:00
Gabonetako Haur Parkea.
Landako Gunean (umeak doan,
helduak euro 1).

ABENDUAK 31

12:00 Jolas Eguna: Kanpaikada
txiki. San Fausto auzoan.
(*Laguntzailea: Centro Social*
San Fausto).

URTARRILAK 2, 3 ETA 4

10:30-14:00 / 16:30-20:00
Gabonetako Haur Parkea.
Landako Gunean (umeak doan,
helduek euro 1).

URTARRILAK 5

18:45 Errege Magoen
kabalkada. Ibilbidea: Frai Juan
Zumarraga
19:15 Ezkurdi

19:35 Udaletxe plaza (**geraldia**)
20:15 Andra Maria (**Belen**
biziduna)
21:15 San Fausto. (*Antolatzailea.*
Congregaciones Marianas).

URTARRILAK 6

13:00 JAEDen zozketa
benefikoa. Andra Mariko elizpean.
Saritutako zenbakiak Andra
Marian eta www.jaed.es web-
ean ikusgai.

ELORRIO

ABENDUAK 20

09:30 Herriko eskolako umeen
Santamas azoka, plazan.

ABENDUAK 22

10:00 Bigarren eskuko azoka,
Berrio-otxo kalean.

17:00 'La crisis de la
imaginación' antzerki-dantza
ikuskizun familiarra, Arriolan.

ABENDUAK 24

10:00-13:00 puzgarriak
kiroldegiko igerilekuan.

10:30-15:00 VI. Gabonetako
artisau eta sortzaileen azoka
plazan.

18:00 Olentzero eta Mari
Domingi elizpean.

ABENDUAK 25

11:30 Meza Basilikako
koruagaz Basilikan.

ABENDUAK 26, 27, 28

11:30 / 16:30-19:30 haur
parkea.

ABENDUAK 29

11:30 Umeen Santxibiri

12:30 Helduen Santxibiri

ABENDUAK 31

09:00 Erdellagaz mendira,

Atxaurrutxagane eta Gongetara.

URTARRILAK 1

09:00 Erdellara irteera

URTARRILAK 2, 3 ETA 4

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur
parkea.

URTARRILAK 5

18:30 Errege Magoen etorrera
elizpean.

GARAI

ABENDUAREN 20TIK AURRERA

Olentzerori eta Mari Domingiri
eskutitzak uzteko kaxa egongo
da udaletxeko atarian.

ABENDUAK 20

19:00 Gabonetako kontzertua
Elizabarrin

ABENDUAK 21

18:00 Kantu Lagun ekitaldia
Gabon kantekin.

ABENDUAK 22

11:00 Gabonetako azoka

ABENDUAK 24

10:00 Olentzero eta Mari
Domingi auzoz-auzo.

17:00 Olentzero eta Mari
Domingi plazan

ABENDUAK 21-29

Marrazki lehiaketa. Udaletxeko
atarian kaxa bat egongo da
marrazkiak bertan uzteko.
Marrazkien atzean egilearen
gatxizena eta adina ipini behar
dira. Horrez gainera, kartazal
bat utzi beharko da kanpoan
gatxizena idatzita, eta barruan
izen-abizenak, adina eta
telefono zenbakia ipinita.

ABENDUAK 29

17:00 Umeentzako filma eta



merendola kultur etxean.

ABENDUAK 31

10:00 Arakaldora igoera plazatik hasita. Amaieran, kopaua.

IURRETA

ABENDUAK 13

Gabonetako tailerretan izena emateko azken eguna. Txiki Chef Gabonetako Errezeta Bereziak tailerrak urtarrilaren 2an eta 3an izango dira.

Gutun eta postalen lehiaketara lanak aurkezteko azken eguna.

09:00-12:30/16:30-19:30
Elkartasun Azoka.

ABENDUAK 17 ETA 19

20:00 Abenduko Koplen entseguak.

ABENDUAK 20

'Olentzerori gutunak'. Eskolaumeek euren gutunak eramango dituzte Ibarretxe kultur etxera. Gainera, eskolekin hitzartuta, magia eta txotxongilo saioak antolatuta dituzte:

10:15 'Erreka Mari' txotxongilo saioa Rosa Maria Martinezen eskutik (2-3 urte).

10:45 'Erreka Mari' txotxongilo saioa Rosa Maria Martinezen eskutik (4-5 urte).

11:00 'Zur eta Lur' magia ikuskizuna Imanol Ituiño magoaren eskutik (LHko 1. mailatik 4. mailara).

17:30 I. Gabonetako Olaburu

Pilota Txapelketa. Kepa Arroitauregi frontoian.

19:00 'Piel de hombre' (Virginia Imaz) helduentzako ipuin kontaketa saioa. Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

ABENDUAK 23

10:00 Abendu koplak. Aita San Migel plazatik irtenda.

ABENDUAK 24

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera. Aita San Migel plazan. Ondoren, kalejira trikitilariak alaituta herrian zehar. Zatoz baserriar jantzita!

ABENDUAK 27

11:30 'Ipuin bat kantu bat' (Lur Korta) ipuin kontaketa (3-5 urte). Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

12:00 'Ipuin bat kantu bat' (Lur Korta) ipuin kontaketa (6 urtetik gorakoak). Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

ABENDUAK 26, 27 ETA 28

17:00-20:00 Gabonetako Haur Parkea: ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak. Kepa Arroitauregi frontoian.

ABENDUAK 27,29 ETA 30

11:30-13:30 / 17:00-20:00 'Gabonetan, erosi lurretan eta irabazi opariak'. Erruleta baten bidez, zuzeneko askotariko sariak herriko merkataritzan eta ostalaritzan abenduaren 12tik 20ra bitarteko erosketak (gutxienez 10 eurokoak izan behar dira) aurkezten dituzten

herritarren artean. Gabonetako otzaren zozketan parte hartzeko aukera egongo da. Bixente Kapanagako biribilgunean.

URTARRILAK 1

09:30 Urte Barri Eguneko Igoera Gallandara. Taldean igotzeko, lurretako plazan.

11:00 Tontorrean ohiko argazkia. Salda eta 2025eko egutegiak banatuko dira.

URTARRILAK 2 ETA 3

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef Gabonetako Errezeta Bereziak. Ibarretxe kultur etxean. Aurretiaz izena eman behar da. 09:30-11:00 LHko 1. mailatik 4. mailara.

11:30-13:30 LHko 5. mailatik DBHko 2. mailara.

URTARRILAK 5

17:30 Errege Magoen kabalkada. Askondon. Errege Magoei harrera egingo zaie eta umeek eurekin egoteko aukera izango dute. Harrera egiten den bitartean, txokolatea eta elkartasun opila banatuko dituzte.

MALLABIA

ABENDUAK 18

18:00 'Gabonak dira eta etxean aulki huts bat dugu. Nola bizi dolua gabonetan'. Hizlaria: Eider Otxoa, doluan aditua. Kontzejuzarren. *Antolatzailea: Gaba Baltza.*

ABENDUAK 20

10:00 Eskolako ikasleak herrira gabon kantak abestera.

Ibilbidea: Haurreskola, farmazia, udaletxea eta jubiletxea. Euria eginez gero eskolako frontoian. *Antolatzailea: eskola*

19:30 Dantza poteoa trikitixa eta panderojoleekin. Herrikoetik hasita. *Antolatzailea: Zaparrada Elkarte.*

ABENDUAK 22

10:00 Baserririk baseri gabon eskean. Ibilbidea: Aitxu, Areitio, Zengotita, Osma eta Trabakua. *Antolatzailea: Mendibil abesbatza.*

ABENDUAK 24

10:45 Topagunea petrilean gabon kantak abesteko.

11:00 Kalerik kale kantu kantari trikitilari eta panderojole gazteekin. Ondoren, Udaletxeko plazan zuhaitza apaindu. Zuhaitza apaintzeko: Norberak egindako apaingarriak (material birziklatua) edo apaingarri berrerabiliak ekarri. Euria egingo balu, ibilbidea aldatuko da eta zuhaitzaren apainketa parkeko aterpean egingo da.

Jarraian, Olentzerori eta Mari Domingi eta Naporri ongietorria Udaletxe ondoan. Gero plazara, Olentzero eta Mari Domingiri gutuna ematera. Euria eginez gero parkeko aterpean.

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek, galtzagorriek, opariak banatuko dituzte herriko frontoian. Gogoratu baserriar arropa jantzita etortzea. *Antolatzaileak: Guraso Elkarte, Zaparrada Elkarte, Mallabiko Gazte Asanblada eta Mallabiko Udala.*

ABENDUAK 26

18:00 Kilian Jorneten filma: Into The Unknown. Kontzejuzarren.

ABENDUAK 27

16:00 Domino txapelketa. 12 urtetik beherakoentzat. Kontzejuzarren.

17:30 Gabonetako bingo berezia. Kontzejuzarren.

18:30 Petanka txapelketa. 12 urtetik beherakoentzat. Frontoian. *Antolatzailea: A.D.Mallabia. F.T.*

URTARRILAK 2 ETA 3

11:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30 Gabonetako Haur Parkea. Frontoian. *Antolatzailea: Udala.*

URTARRILAK 4

10:30 3x3 Eskolarteko saskibalo txapelketa. Frontoian. *Antolatzailea: A.D.Mallabia F.T.*

MAÑARIA

ABENDUAK 18-20

11:00-13:00. Ikastaroa: 'WhatsApp, bat-bateko mezularitza zure smartphonean'. Liburutegian. Izen ematea, udaletxean.

ABENDUAK 22

09:00. Etxerik etxe Olentzero abestera. Elkargunea: plazan.

ABENDUAK 24

18:00 Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria. Plazan.





OLENTZERO ETA MARI DOMINGI.

Abenduak 24
Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.

OTXANDIO

ABENDUAK 14

17:30 Postontzi magikoaren bila. Zer esan nahi digute Galtzagorriek? Mezu bat utzi digute Nagusien Elkartearen... Kontsejupean, ez ahaztu zure gutuna.

ABENDUAK 15

10:30 Tokiko ekoizle eta artisauen azoka. Errementarien erakustaldia, goizean zehar.

12:00 Urrezko Aizkoraren finalerdiak.

13:30 Kale animazioa, Otxandioko Dultzaineroen eskutik.

ABENDUAK 16

20:00 Arratia musika eskolaren emanaldia. Eleizan.

ABENDUAK 20

20:00 Otxandioko Bandaren Gabonetako kontzertua. Elizan.

ABENDUAK 21

17:00 Umeen esku pilota jaialdia eta nagusien txapelketaren finala. Mañondon.

ABENDUAK 24

19:00 Olentzerori harrera beroa ematea. Abesbatzak eta herritarrek ohiko kalejira egin ondoren, Pasealeku jubilatuen elkarteak gaztainak eta ardo epela banatuko ditu.

ABENDUAK 26

18:00 Berbaldia Joseba Sarrionandiaren eskutik. Kultur etxean.

ABENDUAK 31

09:00 Urteko azken mendi irteera. Autobus geltokian.

18:00 Herri Krosa.

20:00 Presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea. Kontsejupean.

URTARRILAK 3

18:00 DJ Kaktus. Haurreskolako areto nagusian.

URTARRILAK 4

18:00 Eriz Magoa. Haurreskolako areto nagusian.

URTARRILAK 6

18:30 'Ai, gure Juaneteak' antzezlan. Haurreskolako areto nagusian.

ZALDIBAR

ABENDUAK 19

21:30 IV. Emakumeen Olazar Pilota Txapelketa (4 ½): finalerdia.

Jarraian, XXXVII Olazar Pilota Txapelketako finalerdia.

ABENDUAK 20

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: Olentzero, Mari Domingi eta euskal ipuinak. Jarraian, Mari Domingiri eta Olentzerori idatzitako gutunen sarien zozketa.

ABENDUAK 23

17:00 Umeentzako antzerkia: Olentzeroren zaku magikoa. Olazarko pilotalekuan.

ABENDUAK 24

Olentzero eta Mari Domingi herri ekimena.

12:00 Harrera Olazar kalean.

12:30 Ongietorri jaialditxoa San Martin plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

ABENDUAK 26 (SAN ESTEBAN EGUNA)

18:00 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak. Eskolako patioan.

ABENDUAK 27 ETA 28

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Gabonetako Haur Parkea. Eskolako kiroldegian.

ABENDUAK 31

12:00 X. San Silbestre lasterketa. Irteera udaletxeko plazatik.

16:00n IV. Emakumeen Olazar Pilota Txapelketa (4 ½): finalak.

Jarraian XXXVII Olazar Pilota Txapelketako finala.

URTARRILAK 1

10:30 Igoera Santamarinazarrera. Talde argazkia tontorrean eta hamarretakoa Olazarren.

URTARRILAK 5

Errege magoak

ZORNOTZA

ABENDUAK 13

20:45 Pilota Pro Fest, Amorebieta IV. frontoian.

ABENDUAK 14

11:00 Gabonetako azoka, herriko plazan. (Antolatzailea: Andra Mari ikastola)

ABENDUAK 15

12:30 Gabon kankak, Larrako elizan. (Antolatzailea: Larreako katekesia)

ABENDUAK 20

20:00 Gabonetako kontzertua, Zornotza aretoan. (Antolatzailea: Zubiaur Musika Eskola)

ABENDUAK 21

08:00 X Rally klasikoa Zubiondo plazan (Ant: Lancer Classic).

10:00 'Erdi olgetan' izotz pista irteera.

12:00 Maider Alcelay 'Ipuinen ordua da' ipuin kontalaria liburutegian.

20:00 Gauero Kanpai gazteak, Zelaietako kontzertu gelan.

20:00 'Gabon oroitzapenak' Aita Eliseori omenaldia, Zornotza aretoan. (Antolatzailea: Zornotzako Musika Bandagaz, Abeskimugaz, Brioletak, Xuxurlariak eta Coral Zornotza)

ABENDUAK 22

12:00 Herriko koralen Mesias Sarritan kaletik zehar.

13:45 Kalbarion topaketa. (Ant: Herriko koroak)

ABENDUAK 24

09:00 Igoera Belatxikietara, Zelaieta parketik. (Ant: Extrem Zornotza).

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira Gudari kalean hasita.

Ondoren, harrera ekitaldia Zelaieta zentroan. (Antolatzailea: Udabarri dantza taldea)

ABENDUAK 26

17:30 'Kontukantari 3: zimurren artean kontukantari' familientzako antzerkia Zornotza aretoan. (Ant: Larresintens)

ABENDUAK 28-29

10:00-19:00 Indoor Cup + 16 urte Larrea kiroldegian.

ABENDUAK 26-30

11:00-14:00/16:30-21:00 'Gabonetan jai' umeentzako gabonetako parkea.

ABENDUAK 26, 27, 30 ETA URTARRILAK 2, 3

11:00-14:00/17:00-20:00 'Txu txu tren' Gudari kaleko autobus geltokian

ABENDUAK 23, 26, 27, 28, 29, 30 ETA URTARRILAK 2, 3, 4, 5

17:00-21:30 Gazte gabonak.

ABENDUAK 30 ETA URTARRILAK 2, 3

10:00-12:00 Zinema kanpua

ABENDUAK 31

09:00 Belatxikietara martxa, Zelaieta parkeko iturrian.

11:00 Argazki erraldoia, luntxa eta animazioa trikitilariekin, Belatxikietako ermita aurrean. (Ant: Zornotza mendi taldea)

16:30 San Silvestre lasterketa, Zelaieta parkean (Amorebieta-Etxanoko triatloi taldea)

URTARRILAK 3

17:30 Markeliñeren 'Zepo zapo' familientzako antzerkia, Zornotza aretoan.

20:45 Pilota Pro Fest, Amorebieta IV frontoian.

URTARRILAK 4

12 orduko maratonia, Amorebieta IV frontoian (Ant: Lagun onak pilota kluba).

17:30 Hikaren 'Atearen bestaldean' familientzako antzerkia, Zornotza aretoan.

URTARRILAK 5

18:00 Erregeen kabalkada, Gudari kalean.



OPARI bonuak 2024

Sartu gure webgunean,
aukeratu opari bonua,
inprimatu eta listo!



Areatza Bainuetxea



Zirkuitu Termalak
Masajeak
Bikote-Kapritxoak
Erritual naturalak
Egonaldiak Hotelean
Hidroterapia
Estetika & Kosmetika

Askatasuna, 50 bis
Areatza

946 57 27 05 / 946 57 53 81
reservas@hotelbalnearioareatza.com
www.hotelbalnearioareatza.com





Gabonetan opariak erosteko aukera zabala Durangaldean

Oparien erosketan kalitatezko produktuak eta aholkularitza ezin hobea. Horixe eskaintzen dute Durangaldeko merkatariek. Gustu eta poltsiko guztietarako produktu zein zerbitzuak eskura ditugu Durangaldean, beste inora joan barik, opari paregabeak erosteko. Zalantzarik barik bertatik bertara erostea da aukerarik onena. Zero kilometroa oinarri hartuta kontsumitzeko egunak dira. **Urte Berri on!**



📍 Kalebarria z/g, Durango
☎ 946 201 893

📱 @urrike_liburudenda
📺 f Urrike liburudenda




Sistema de Descanso y Textil
Alcance Sismalá eta Oribak

ZURE ATSEDENA HOBETZEN
LAGUNTZEN DUGU.
JAI ZORIONTSUAK!



📱 @pastelena_ayarza_1949

Luis Urrengoetxea, 11 - Zornotza
Tel: 94 673 02 42

Montevideo, 10 - Durango
Tel: 94 403 54 19






- 🚚 Zure produktuak kosturik gabe entregatu eta jartzen ditugu.
- € Aukeratu gehien gustatzen zaizun ordaintze-metodoa
- ♻️ Zure ohe zaharra kendu eta birziklatzen dugu
- 🏠 Doako finantzaketa TAE % 0 komisiorik gabe
- 📞 Etxeko aholkularitza eta "hitzordua" jartzeko aukera

ETXEDREAMS, historia duen izena

— Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak —

Tel.: 652767433 / 747495302
etxedreamscolchonerias@gmail.com
@etxedreams_colchonerias

**DURANGO - ERMUA
AMOREBIETA - EIBAR**



EUSKOTZARAK
 MOZA & GOURMET

Ermodo kalea, 3
 48200 Durango
 Tel: 946 817 205
 info@euskotzarak.com

**Euskotzarak,
 gabonetako otzarak
 zure konfiantzazko
 lekuan.**




Provenza

Andra Mari, 20
 DURANGO
 Zuloagatarren, 7
 EIBAR

Emakumeentzako arropa
 eta osagarri karmodunak





arteka
 liburu-denda

artekale, 20
 944 657 292
 Durango

haur literatura
 artea
 musika
 arkitektura
 opari bereziak
 erakusketak





artekalea 23 durango . 946 810 775 . info@hitzliburudenda.com

hitz
 liburudenda

PLEIBAK
 MIREN AMURIZA

HETERO
 LAURE ALBERDI

BISONTE
 HASTODONTAREN
 BILA




KOLTZOIAK - OHE OINARRIAK
 BURKOAK - OHEKO ARROPA

bed's

Zure premiei
 erantzuteko
 prest egongo gara

Aluitz, 1 - DURANGO Tel.: 944 005 960




El Badulake

Barrenkalea 22 Durango
 Tel: 627 HI 002

Instagram icon Facebook icon

elbadulakedurango





Gabonetan osatu mahaia Sardexka^{rekin}

Era guztietako kroketak, sarrerakoak, txipiroiak bere saltsan, makailaua pil-pil erara, bildotsa tenperatura baxuan, arrainak, tartak, ...

sardexka

etxerako janaria

Eskariak egiteko azken eguna
Gabon gauarako, abenduak 18 - Gabon zaharrerako, abenduak 26

Murueta Torre auzunea, etxealdea 8, Durango
Tel.: 94 652 49 27 www.sardexka.eus



Para Ti

Para Ti

Ermodo 14-B.
DURANGO

 [paratidurango](https://www.instagram.com/paratidurango)



Politte!

Politte

Andra Mari 16
Montevideo etorbidea 1
DURANGO

 [politte.official](https://www.instagram.com/politte.official)



Auban
TRUCIARIA EKA USORRE • CHOCOLATE I PIKATZE

Eguberri on zoriontsua
igaro dezazuela
opa dituegu bihotzez

Zatoz
Sanmartinpeko
gozoak eta
trufak
dastatzera






TURROI ESKLUSIBOAK



GOZATEGIA
gozatu
ORNDEGIA

Ermodo, 11 Durango
946 201 663
661 40 14 00

[f Gozatu Gozotegia](https://www.facebook.com/GozatuGozotegia)
[@gozaturgozotegia](https://www.instagram.com/gozaturgozotegia)



SILLERO ZAPATA DENDA
1887an sortutako etxea




Kanpantorrosteta 1 - Durango
Tel.: 94 681 22 09

mi casa
cosas de casa
DURANGO



Astakerako 30 bolera
656 735 110
946 004 664



Gabonetarako opari proposamenak

Hutsik egingo ez dizuten opariak aukeratu nahi badituzu, adi irakurri Virginia Ansorenak egindako lau gomendio hauek, gustu eta poltsiko guztietarako



VIRGINIA ANSORENA
ESTETIKA
ZENTROA

Virginia Ansorena Estetika Zentroan zein lehentasun duzue?

Zentroan emaitza estetikoak bilatzen ditugu, beti ere azalaren ongizatea eta osasuna lehenetsita. Azal politak bilatzen ditugu eta zahartzarora beti izan dugun aurpegiarekin heltzea, baina ondo zainduta.

Gabonak sasoi ona dira ongizatea eta osasuna oparitzeko. Interesa dutenei zer gomendatuko zenieke?

Banakako tratamenduak zein bonuak oparitu daitezke, aurpegia zein gorputza landuta.

Aurpegia lantzerakoan, zein da zentroaren indargunea?

Azalaren zahartzeari dagokionez, prebentzioa da gure indargunea, azal gazteen kasuan. Azal heluagoetan zeinuak argiak direnean beste tratamendu batzuk ditugu. Higiene eta hidratazio tratamenduak egin daitezke, elkar ezagutzen hasteko. Edo, bestela, sakonagoak ere izan daitezke, baina kasu honetan zortzi-hamar saio beharko lirateke benetan eraginkorra izan dadin.

Eta gorputzeko tratamenduetan zein eskaintza duzue?

Erritualak lantzen ditugu, tratamendu bakarrak. Kasu honetan parte sensorial eta aromatizatu handia dute. Asko zaintzen dugu produktuaren kalitatea eta gure eskuak lasaitasunerako tresna izan daitezela. Denbora berezi bat izaten da. Era berean, tratamendu berean aurpegikoa ere gehitu dezakegu osagarri legez.

Opari benetan berezi bat aukeratu nahi banu?

Badugu tratamendu eksklusibo bat, María Galanen tratamendu autotermikoa. Ordu eta erdiko lana da, kosmetikako goi mailako kalitatea duten produktuekin. Printzipio aktibodun produktuen kapak jartzen dira. Bukaeran 45 gradura arte berotzen den maskarilla bat jartzen da, kolagenoa sortzeko. Tratamendu ez inbaditzailea eta eskuzko tratamenduak gustuko dituztenentzat oso aproposa izan daiteke. Era berean, beste tratamendu mota batzuk nahi dituztenentzat ere punterengo teknologia ekipoa ditugu.



Hanakasumi erritual japoniarra

Inspirazio japoniarreko tratamendua da. Tratamendua loto- eta gereziondo-loreetan bilduta dago.

Mugimendu guztiak dantza baten modukoak dira, eskularru exfoliatzaileekin eta hanketako reflexologiarekin lan egiten da. Gorputzeko tratamenduen artean, opari izarra da.



Aurpegia gaztetzea Indibarekin

· **Aurpegia gaztetzea:** Indiba medikuntzaren mundutik estetika arlora heldu da. Kolagenoa sortu eta elastina indartzen duen zelula estimulatzaileko balio du.

· **Argaltzea:** Dieta egin nahi duten pertsonen kasuan ehingarri bat da, koipea desagerrarazten duelako.



Depilazio laserra

Laser depilazio saioak oparia egiteko beste aukera bat dira. Gainera, negua oso momentu ona izaten da tratamendu hauetan sakontzeko.

Bonuak zein saio solteak oparitzeko aukera duzu.



Kosmetika oparitu

Goi mailako kosmetika eskaintzen dugu pertsona bakoitzaren beharrezanaren arabera. Zatoz eta oparia egingo diozun pertsonaren ezaugarrien arabera aholkatuko zaitugu.

· **Aurpegiko Hidraona garbiketa:** Indibaren aurpegiko garbiketa sakona egiteko tratamendua ere beste aukera bat da.



VA
VIRGINIA ANSORENA

Josemiel Barandiaran Kalea, 10
Durango
Tel. 944 35 57 45
@estetica_virginia_ansorena





Zaldibarko herritarrek harrera egin zieten, iaz, Olentzerori eta Mari Domingiri. OLENTZERO ETA MARI DOMINGI HERRI EKIMENA

Izakirik magikoenen eta maitatuenen hitzordua

Olentzerok eta Mari Domingik laster bisitatuko dituzte Durangaldeko etxeak. Izan kalejirak, izan opari banaketak, izaki magiko biek makina bat lan izango dute Gabon gauean. Zaldibarren, adibidez, herri ekimen batek hartuko ditu pertsonaia biak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Horra Mari Domingi, begira horri! edo *Horra, horra! Gure Olentzero!* Durangaldea prest dago gabonetako pertsonaiarik maitatuenei harrera egiteko. Besteak beste, Zaldibarren. Bertako Olentzeroren eta Mari Domingiren herri ekimenak geroago eta ikusmin handiagoa sortzen du urtetik urtera. Aurten ere, izaki magiko biek herriko umeek (eta ez hain umeek), txistulariek, trikitalariek, dantzariak, eskolako gurasoak eta Napo astoak lagunduta egingo dute etorrera.

Egitasmoa antolatzen dabilen kideetariko bat Zuriñe Garcia da. "Oraindino kontu gutxi batzuk lotzea falta zaigu, baina aurten

ere Olentzeroren eta Mari Domingiren herri ekimena izango dugu herrian. Hitzordu berezia da, herriko jendeak sorturiko eta mantenduriko ekitaldia da eta", azaldu du. "2015-2016 buelta horretan egin genuen gabonetako lehenengo herri ekimena. Izan ere, ordura arte udalak Olentzeroren pampina bat ateratzen zuen kalejiran. Castet elkarteak bere Olentzero propioa kaleratzen zuen. Azken finean, horri guzti horri forma ematea pentsatu genuen, eta Olentzero eta Mari Domingi herri ekimena sortu genuen", gaineratu du Garciak. Harrezkerro, urte bat joan beste bat etorri, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera oinarri sendoko

egitasmo bihurtu da Zaldibarren. "Kalejiran zehar irrintzilariak egoten dira, eskolako gurasoek salda banatzen dute, abesbatzako kideek ez dute hutsik egiten, Zaldibarko Jendeak elkarteko kideak ere bertan izaten dira eta hainbat lagunek osaturiko musika taldea ere izaten dugu. Horrez gainera, herritarrek baserritar jantzita irteten dira kalejiran. Otzarak, aizkorak... baserriko lanabesak izaten dituzte eskuetan", nabarmendu du Garciak.

Kalejira abenduaren 24an egingo dute, 12:00etan, Olazarretik hasita. Amaieran ekitaldia egingo dute, San Martingo ermitan. Olentzerok eta Mari Domingik bertan egingo diete harrera umei.

Kolore anitzeko egitasmoa



UME ZEIN HELDU
EGUN ILUSIONAGARRIA

Umerik txikienek Olentzerorengan eta Mari Domingirengan iltzatuta izaten dute begirada, baina nagusiagoek herri ekimenean parte hartzeko joera hartu izan dute. LH5. mailatik aurrerako umeek kalejiran parte hartzen dute. Euretariko batzuk Galtzagorri jantzita joan izan dira herritarrek zirikatzen.



MUSIKA UGARI
TXISTUA, TRIKIA, ROCKA

Musikariek ez da falta izaten. Txalaparta, trikiti-doinuak edo txistua izan, gabonetako pertsonaiek soinu banda ederra izaten dute kalejiran zehar. Aipagarria da, halaber, herriko musikari batzuek ospakizunerako beren-beregi prestatzen duten emanalditxoak. Irudian, iazko musika talde bat, herri ekimena giroitzen.



AUZOLANA OINARRI
ANTOLAKUNTZARAKO DEIA

Kalejiran begi bistakoa da herriko eragileen inplikazioa. Zuriñe Garciak herritarren parte hartzea txalotu, eta gar hori bizitzera deitu du: "Antolaketa lanetan jarraitzeko eta parte hartzeko deia egin gura diegu herritarrei", esan du. Irudian, Ikasleen Gurasoen Elkarteko kideak. Salda bero-beroa zerbitzatzen dute urtero.



SAN MARTIN ERMITA
AMAIERAKO EKITALDIA

Ekitaldiaren kokalekua aldatuz joan da urterik urte. Iaz, San Martingo ermitan egin zuten kalejira amaierako ekitaldia. Galtzagorriek adierazpen bat irakurri zuten. Eta Olentzerok eta Mari Domingik herriko umeak hartu zituzten. Aurreratu dutenez, aurten ere San Martingo ermitan egingo dute ekitaldia.

EGUBERRI

Sorginduak

Gastatuak

Abenduaren 24ra arte

MASKOTA-DENDA

Barbie

EDO CITY MEGA DORRESA

AUTOMOBIL-GARBIKETA

19,99 €

DURANGO

Montorreta Industrialdea, 1 ST3 errepidea.

Irabesten atzeratzen ezara.



Bakailaoa algekin eta trufa kremarekin

Gabonetan kozinatzeko proposamena
MAKALLAU SALTSAren eskutik



Osagaiak

- 4 bakailao solomo.
- Oliba olio.
- Gatza.
- Piperbeltza.
- 50 g alga deshidratatuta.
- Baratxuria, sesamo olio.
- Soja.

Trufa kremarako

- 200 ml esne-gain likidoa kozinatzeko.
- 1 koilarakada gurin.
- 1 koilarakadatxo pasta edo trufa beltz olio.
- Gatza eta piperbeltza nahierara.

Elaborazioa

- Hidratatu algak ur hotzetan, xukatu eta gorde.
- Zartagin batean, berotu sesamo olio, frijitu baratxuria eta gehitu alga hidratatuak.
- Kozinatu 2-3 minutuz, soja saltsa zorrotadaxo bat gehitu, ongi nahastu eta sutatik kendu.
- Berotu oliba olio zartagin batean, gatza eta piperra bota bakailao solomoei eta su ertainean egin alde bietatik.

Trufa kremarako

- Gurina urtu.
- Joan botatzen esne-gain likidoa apurka-apurka irakin barik.
- Trufa pasta edo trufa olio gehitu eta ondo nahastu.
- Gatza eta piperbeltza bota.
- Kozinatu 2-3 minutuz apur bat loditu arte.

Platera muntatzeko

- Ipinu alga ohe bat plateraren erdian.
- Ipinu bakailao solomoa gainean.
- Trufa krema gainetik bota.
- Trufa fresko zati fin batzuk gehitu, apaintzeko.

MAKALLAU
Saltzan

Abenduaren 9tik
urtarrilaren 7ra
ZABALIK!

Etorri Makallau Saltzan dendara Durangon
eta gozatu bakailaoaren zaporea
zure gabonetako ospakizunetan!

Kalebarria 23, Durango | 688.773.205 / 946.200.427
saltzan.com

www.afede.com



Party&Co
Junior euskeraz
21,95€

7 herrialdetako
familiak
4,20€



Animalien
Igarbizunen Jokoa
12,99€



Euskal Jokoa
Superpoly
21,50€

afede



Gure Jostailu-Denda



Maridomingi
edo Olentzero
pelutxea
11,95€



Catan jokoa
44,95€



Hitzgurutzatuak
19,95€




Euskotren tren
elektrikoa
42,99€



Parte hartu jostailu
hauen zozketan
anboto.org webgunean!



LETRA ZOPA





MARGOTU

Margotu eta moztu gabonetako apaingarriak.





PUNTUAK LOTU

Puntuak lotu eta irudia sortuko duzu.
Gero, margotu gurago duzun moduan.



A dot-to-dot puzzle in the shape of a Christmas tree. The puzzle consists of 33 numbered dots. The top point of the tree is dot 1. The base of the tree is formed by dots 13, 14, 15, 16, 17, and 18. The puzzle includes several smaller star shapes and a rectangular trunk at the bottom. The numbers 1 through 33 are placed next to their respective dots.



Olentzero eta Mari Domingi maiteak



"Beti hurbil sentitu dudan lekua da Azoka"

SORMEN BEKA Irati Bazeta artista abadiñarrak jaso du zazpigarren Sormen Beka; margogintza landuz dozena bat pieza sortuko ditu, euskararen inguruko hainbat hausnarketa konpartitzeko; Bazetak erakusketa egingo du datorren Azokan



Irati Bazeta, museoan.

Aritz Maldonado DURANGO

Irati Bazeta abadiñarrak aurtengo Sormen Beka irabazi du 'Euskara jendea' gaitzat emandako proiektuagaz, eta orain urtebete epea du esku-hartze artistikoa egiteko. Margogintza landuz dozena bat pieza sortuko ditu eta 60. Durangoko Azokan erakusketara egingo du. Artista abadiñarrak aurkeztu duen proposamena *Hariaren isla* da eta 15.000 euroko beka jasoko du lana egiteko. Gerediaga Elkarteak eta Durangoko Udalak sustatzen duten zazpigarren deialdia izan da hau. Sortzaile berrien bidelagun izateko beka honek bere helburua betetzen duela nabarmendu du Nerea Mujika Gerediagako presidenteak: "Gazteen lanek erakusleho bat izatea gura genuen eta horrela izan da orain arte". 59. Durangoko Azokan Marramiau sorkuntza taldearen *Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz* telesaila aurkeztu dute, iazko sariduna.

Zer da Hariaren isla?

'Euskara jendea' zen gaia eta lan piktoriko bat aurkezteko aukera zegoen; hortaz, margogintzaren bitartez, gaia kontuan hartuta euskarari buruz hausnartzea eta eragitea gura dut. Nor da euska-

ra jendea? Badugu kontzientzia linguistikorik? Bizi dugu hizkuntza estresa? Zein momentutan? Euskarara heltzeko denok ditugu baliabide berdinak? Margolan batzuk egin gura ditut, hamar bat lan edo, eta atal desberdinak egongo dira. Kontzientziari buruzko bat, hizkuntza ibilbideen inguruko bat... Hainbat ideia dut buruan, eta zirriborroak lantzen nabil, koloreak aukeratzen eta. Datorren urtean museoan bertan aurkeztuko dut.

Horrelako beka bat jasotzeko zenbat babesten du artista?

Sekulako aukera da. Baliabideak ematen dizkizu, plaza bat, denbora... Egia esateko, ez nuen espero inondik inora lortzea, baina proiektua aurkeztu nuen eta gaur hemen nago.

Beka hau jaso duen Durangaldeko lehenengo artista zara. Horrek jendea parte hartzera animatuko duela uste duzu?

Durangoko Azoka beti hurbil sentitu dudan lekua da eta horrek ere laguntzen du aurkezteko pausoa ematera. Ez dakit nik jasotzea aurrekaria izango den, baina, funtsean, eskualdekoontzat hurbileko plaza da eta urtero gabil-tza hemen aurrera eta atzera.

"Kulturazaleei Durangoko Azokara etortzeko dei egin diegu, kultur sistema osasuntsu baterako ezinbesteko katebegia direla aitortuz, eta egunotan izan dugun bisitarien joan-etorriak erakutsi digu kulturazaleak ardura hori hartzeko prest daudela. Horrek guzti horrek pentsatzera garamatza kulturazaleek agertu duten nahia praktikara eramateko egiturazko espazioak ugaritu bagenu, euskal kulturgintzak ohiko hartzaile gehiago izango lukeela urte osoan zehar", nabarmendu dute Gerediaga Elkartekoek. Azokaren aurtengo edizio jendetsuak Benito Lertxundi omenduz itxi ditu ateak; abenduaren 8an Landako gunean zeuden musikari, bisitari eta erakusmahaietako kideek *Oi ama Eskual Herri* kanta abestuz agurtu zuten aurtengo azoka.

Aurten ere jendetza ibili da Durangon Azokak iraun duen lau egunetan. Jendetza horren erakusgarri izan dira egunotan, eguraldiak lagundu ez arren, Landakoko sarreretan izan diren jende ilarak. "Jakitun gara kulturazale askorentzat ez dela bisita eroso izan, eta erakutsitako jarreragaitik eskerrak eman gura dizkigu denei. Hurrengo edizioetan irtenbideak aurkitzen ahaleginduko gara", esan dute antolatzaileek. Guneetako aurkezpenetan ere jendetza batu da. "Urteak dira esaten gabiltzala Azoka Landako Gunean hasten den arren hori baino askoz gehiago dela, eta aurten berretsi egin da hori. Guneetako irizpideak finkatu izanak euskal kulturgintza bere ertz guztiekin erakusteko bidea eman digu", gaineratu dute. Horrela, Landako Gunea euskal kulturaren erakusleho bilakatu da beste urte batez. "Sor-

tzailen eta kulturazaleen hartu-emanetarako plaza ere izan da, eta sorkuntza lanak aurrez aurre azaldu dituzte ekitaldietan eta erakusmahaietan; jendearen babesa jasota, aurrera begira jarraitzeko bultzada jaso dute sortzaileek", azpimarratu dute.

Funtsean, kulturazaleek kultur sistema osasuntsu baten parte izateko prest daudela ondorioztatu dute edizio honen ondoren. Eta erronka hori euren buruei ipini diete kultur egitasmo erraldoia antolatzen duten kultur eragile, herri erakunde, komunikabide, sortzaile eta kulturazaleek. Ilara luzeak ikusita, antolatzaileek oraindino gehiago eskertu gura izan diete euren jarrera bisitariari.

ZuNonHanDa

Bestalde, astelehenean ZuNonHanDa egitasmoa ipini zuten martxan, kultur sorkuntza eta zaletasuna hauspotzeko eta sortzaile, bitartekari eta herritarren arteko zubiak eraikitzeko asmoagaz. Durangoko Azokan aurkezturiko nobedadeak 66 saltokitan egongo dira urtarrilaren 19ra arte; 23 dendatan, gainera, aurkezpenak egingo dituzte, idazlea bertan dela; esaterako, abenduaren 11n Alaitz Melgarrek eta Itziar Otegik euren liburuak aurkeztu zituzten Durangoko Arteka eta Hitz liburu dendetan.

DURANGOKO AZOKAN AURKEZTURIKO NOBEDADEAK 66 SALTOKITAN EGONGO DIRA URTARRILAREN 19RA ARTE

Kulturazaleek gogoz erantzun diote Durangoko Azokaren deiari



LUCIA MERUELO

Hamabost emanaldi San Agustinen ziklo berrirako

ANTZERKIA Urtarriletik maiatzera, hamabost emanaldi egongo dira, askotarikoak; Artedramaren 'Miñan' eta Alberto San Juanen 'Macho grita' lanak taularatuko dituzte; baita Durangaldeko Gorakada, Hotzikara eta Banarte taldeen lanak ere

Aritz Maldonado DURANGO

Ixo Teatroren *Eros* izango da 2025eko denboraldian San Agustinen kulturgunean taularatuko den lehenengo ikuskizuna. Urtarrilaren 12an izango da eta Aitor Etxarte aktore durangarrak San Agustinen profesional modura antzertuko duen lehenengo aldia izango da. "Irrikan nago plaza honetan profesional modura egingo dudan lehenengo emanaldi horretarako", azaldu zuen Etxartek aurkezpenean. Durangora helduko den beste lanetariko bat antzokiak betetzen dabilen *Miñan* izango da. "Erronka handia izan da horrelako istorioa antzerkira egokitzea", azaldu du Ander Lipus zuzendaria. Egitarau osoa ANBOTOren webguneko Agenda atalean dago.

Bazkidetza kanpaina

Urtero legez, martxan ipini dute San Agustineko bazkidetza kanpaina; 25 euroko tarifa du. "Durango kulturaren hiriburua izatea gura dugu, urteko egun



'Miñan'. AINHOA RESANO

guztietan. Gure udalerrria txoko bakoitzean kultura bizitzeko, sentitzeko eta gozatzeko lekua izatea gura dugu, durangarrek zein bisitariak lehenengo mailako kultur proposamenak etengabe eskura izan ditzaten, ez

une jakin batzuetan bakarrik", azaldu du Paule Sanchez zinegotzi eta Astarloa kulturagintzako presidentek. Bestalde, emanaldi guztietarako sarrerak salgai daude, udalaren webgunean zein museon.



2022an antolatatu zuten lehenengo beka. GEREDIAGA

Durangaldeko Ikerlari Berrien Sariaren laugarrena, martxan

IKERKETA 35 urtetik beherako gazteek aurkeztu dezakete ikerketa; 1.500 euroko sari bakarra banatuko dute

A. M. DURANGALDEA

Durangaldeko ikerlari gazteen lana sustatzeko asmoagaz, Gerediaga Elkartek antolatzen duen Durangaldeko Ikerlari Berrien Saria bekaren laugarren deialdia egin dute. Gerediagak 2022an ipini zuen martxan egitasmoa, Durangaldeko ondare, historia, kultura, gizartearen zaintza, ikerketa eta zabalpenagazko interesa eskualdeko gazteen artean zabalteko. Aurtengo deialdian kategoría bakarra sarituko dute, 1.500 eurogaz; Astola aldizkarian ikerketa lanaren laburpena argitaratzeko aukera emango zaio irabaz-

leari. Lana euskara hutsean aurkeztu beharko da eta ikerketa gaiak Durangaldean kokatua izan beharko du. Lanak 2025eko ekainaren 15era arte aurkeztu ahalko dira.

Aurreko edizioetan, Peio Martinen *Elkarrizketa amamarekin*, Ibone Gomezen *Euskal bidaiariak*, Adrian Burgadaren *Ibaizabal ibaia*, Jokin Camareroren *Durangaldeko mitologia*, Xixili Bengoetxearen *Otxandion izan zen* eta Marta Calvoren *Abadiño-ko Nuestra señora de Begoña barnetegia frankismoaren ongintza sistemaren hastapenetan* lanak saritu zituzten.



GAI LIBREAN

AINHOA OLASO SOPELANA BEHARGINA

Demagun Juan Carlos Perez naizela

Azken egunotan txoriak ez dira ari zeruratzen, zerua da txorien gainean erori dena eta txantxangorri bat sartu zait gau erdian logelan. Promesarik gabeko presentzia bat. Hegalak astinduz kolpeka hasi da topatzen zituen muga guztien kontra, eta esnatu egin naiz.

Txoria nork bidalia izan den zalantza egin dut hasieran, baina argi entzun diot zerabilen kantu melodiko borobila: *bila nabilenaren bila nator*.

Demagun istorio hau luzeagoa dela. Baina demagun, giza erreproduzioa kudeatzeko merkatu injustu bat existitzen zela imajinatu nuela haurra nintzela: lehenengo, gurasoek galdetegi bat betetzen zuten (galdera labor eta "markatu laukitxoak" batzuk izango zituen) eta balorazio ekonomiko eta genetiko batzuen ondoren, aukeraketa horren arabera jaiotzen ginen haurrok. Parametro horien arabera, nire gurasoek Juan Carlos Perezen ahotsa izan nezan inbertsioa egin izanaren

"NIRE GURASOEK JUAN CARLOS PEREZEN AHOTSA IZAN NEZAN INBERTSIOA EGIN IZANAREN SUSMOA SORTU ZITZ AidAN"

"ESPazio PSIKIKO SEGURU BATEN BILA DABILELA ERANTZUN DIT ETA ELKAR BESARKATU DUGU AZKENEAN"

susmoa sortu zitzaidan. Demagun haurtzaroko fantasia batean geratu dela kontua.

Logelako kaosari estiloa ezarri nahian, baina Itoizekiko konpromiso estetikoari uko eginez, leiho guztiak zabaltzeari ekin diot arrisku ederrean.

Baina txoriak ez du gau ilunera itzuli nahi izan eta gertatzen ari dena errelatatzeke proposamen bat iruditu zait. Eta orduan kantuan hasi natzaio anabasa dagoen tokian samurtasuna bilatzeko gaitasunari buruz. Espazioen okupazioak herriaren psikogeografia aldatu dezakeela, ez dagoela "arrazoia" gisa zertifikatutako depresio honetarako astirik, jabetza pribatua eta etxebizitza sistema kanibalismo hutsa direla, eta, donostiar politeista bastardak dioen bezala, munduko asmakizun ederrena 'gu'-a dela azaldu diot.

Espazio psikiko segurua baten bila dabilela erantzun dit eta elkar besarkatu dugu azkenean.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 13

ABADIÑO Erakusketa

'Natura ilustratzen' (EHUko Ilustrazio Zientifikoko Masterreko ikasleen lanak).
Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra bitartean.

DURANGO Erakusketa

Durangaldeko Gazteen VIII. Arte Lehiaketara aurkeztutako lanak.
Ezkurdi erakustaretoan, abenduaren 15era bitartean.

DURANGO Musika

Guillermo Fernandez.
Bertsio akustikoak.
Otamotzera auzogunean, 19:00etan.

ELORRIO Erakusketa

Ana Herranzen eskultura eta akuarelak.
Iturri kultur etxean, abenduaren 30era bitartean.

ELORRIO Erakusketa

2025eko egutegiko argazki lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa.
Udal liburutegian, urte amaierara arte.

IURRETA Tailerra

Marrakzi eta sormen tailerra, LHko 6. mailatik DBHko 4. mailako gaztetxoei zuzenduta.
Etxegon, 17:00etatik 20:30era bitartean.

ZORNOTZA Erakusketa

Ertibil 2024. Ikusizko Arteen Erakusketa Ibiltaria.
Zelaieta Zentroan, abenduaren 30era bitartean.

ZORNOTZA Antzerkia

'Miñan' (Artedrama konpainia).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 14

DURANGO Musika

Hell From Fire Fest jaialdia: Rise to fall + Blood Hunter + Ancient Settlers.
Plateruena kultur aterpean, 20:00etan.

IURRETA Irteera

Debara bizikleta irteera.
Iurreta Txirrundulari Elkarteak.
Iurretan, 10:00etan.

DOMEKA 15

ATXONDO Azoka

Bigarren Eskuko eta Truke Azoka. Ondoren, baba-jana. Amillena Arrazolako bentak antolatuta. Izena emateko, 94 627 89 07 telefono zenbakian.
Arrazolako plazan, 11:00etatik 15:00etara.

DURANGO Musika.

Kontzertu korala: Gerardo Rifón (organoa), Bidane Txopitea (sopranoa) eta Hodei Yáñez (baxua), Fernando Urainen zuzendaritzapean.
XXV. Musika Hamabostaldia.
Uribarriko Andra Mari basilikan, 19:30ean.

DURANGO Elkartasuna

'Ibiltari' martxa solidarioa. San Jose Jesuitak ikastetxeak eta Alboan Fundazioak antolatuta.
Ezkurdin, 11:00etan (beroketak eta dortsalak, 10:30ean).

IURRETA Santomasak

Santomasen ospakizuna, LHko 6. mailatik DBHko 4. mailako gaztetxoei zuzenduta.
Etxegon, 17:00etatik 20:30era.

IURRETA Irteera

Loiura bizikleta irteera.
Iurreta Txirrundulari Elkarteak.
Iurretan, 10:00etan.

BERRIZ Dantza

Adriana Bilbao flamenko koreografo eta dantzariak, besteak beste, Joxean Artze, Itxaro Borda, García Lorca, Teresa de Ávila eta Bernard Manciet poeten lanetan oinarrituriko *Maitasunak* lana taularatuko du.
Abenduaren 14an, zapatua, Kultur Etxean, 19:00etan.

EGUAZTENA 18

ABADIÑO Ipuinak

Maite Franko ipuin kontalaria (4-8 urteko umeentzako saioa).
Mediatekan, 17:00etan.

ZORNOTZA Musika

El oso de Benalúa y sus sabandijas taldea.
Zelaietako zentroko kontzertu gelan, 20:00etan.

EGUENA 19

BERRIZ Berbaldia

'Hitz egin dezagun heriotzaz: Gabonak dira eta aulki bat hutsa etxean' berbaldia. Berriztar bik euren testigantza emango dute.
Kultur Etxean, 19:00etan.

ZORNOTZA Sariketa

Zornoza kultur elkarteak antolatutako XXV. Ipuin Lehiaketako sari banaketa.
Zornoza Elkartearen egoitzan, 19:00etan.

BARIKUA 20

BERRIZ Antzerkia

'Esna' (Marie de Jongh & Doos colectivo).
Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO Bakarriketa

Gelo Fuentes (Kantabria).
Otamotzera auzogunean, 19:00etan.

ELORRIO Antzerkia

'Ay Dios!' (Oskar Terol).
Arriola antzokian, 20:00etan.

IURRETA Ipuinak

'Piel de hombre' (Virginia Imaz).
Helduentzako saioa.
Bibliotekan, 19:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua

Gabonetako kontzertua (Zubiatur Musika Eskola).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

ZAPATUA 21

ZORNOTZA Ipuinak

'Ipuinen ordua da' (Maidier Alcelay ipuin kontalaria). Izena eman behar da.
Zelaieta Zentroko liburutegian, 12:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua

'Gabon oroitzapenak' (Zornotzako Musika Banda).
Zornotza Aretoan, 20:00etan.

DOMEKA 22

ELORRIO Antzerkia

'La crisis de la imaginación' (Rauxa Cía).
Arriola antzokian, 17:00etan.

ZINEMA

BERRIZ

KULTUR ETXEA

Superklus
Domeka 15: 17:00.

Gaza mon amour
Eguaztena 18: 18:30.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

¿Es el enemigo?

Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 19:30, 21:30.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 18:00, 20:15.
Martitzena 17: 18:00, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Kraven. The Hunter

Barikua 13: 18:00, 20:30.
Zapatua 14: 17:30, 19:15, 21:30.
Domeka 15: 17:00, 19:30.
Astelehena 16: 17:45, 20:15.
Martitzena 17: 17:45, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Emilia Pérez

Barikua 13: 17:45, 20:30.
Zapatua 14: 20:00.
Domeka 15: 19:30.
Astelehena 16: 17:45, 20:15.
Martitzena 17: 17:45, 20:15.
Eguaztena 18: 19:00.

Superklus

Zapatua 14: 17:00.
Domeka 15: 17:00.

Vaiana 2

Zapatua 14: 17:00.
Domeka 15: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Azken Erromantikoak

Zapatua 14: 20:00.
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:00.

Central Parkeko Heroiak

Domeka 15: 17:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

Gladiator II

Zapatua 14: 20:00.
Domeka 15: 20:00.
Astelehena 16: 20:15.

Las cosas sencillas

Martitzena 17: 20:15.

Dalia y el libro rojo

Domeka 15: 17:00.



ADRIANA BILBAO



Landako Guneko informazio puntua. LUCIA MERUELO

Durangoko Azokak utzitako irudirik onenak

59. Durangoko Azoka oso jendetsua izan da, oso edizio arrakastatsua. Aurtengoak ere irudi zoragarriak utzi ditu. Hona hemen Lucia Meruelok ateratako zenbait argazki



Gerediaga Elkarteko kideak. LUCIA MERUELO



Miren Amuriza. LUCIA MERUELO



'Tupust! Gu' liburuaren aurkezpena. LUCIA MERUELO



Aiora Renteria Zea Mays taldeko abeslaria. LUCIA MERUELO



Izaro diskoak sinatzen. LUCIA MERUELO



Gorka Urbizu sinatzen. LUCIA MERUELO



Artisauak Euskal Dendan lanean. LUCIA MERUELO



Euskal Denda. LUCIA MERUELO



Keia taldea Ahotsenean. LUCIA MERUELO

Abenduak 17 18:30

**IURRETAKO
KANTAK
ETA KONTUAK
AURKEZPEN
MUSIKATUA**

Iberiar Kultur Etxean

Iurretako herri eta literatura: sator legairirik
Julen Berroa
Iñaki Larrañaga

Iurretako
Euzaldeko Udala

Eman izena lekua gordetzeko!

ERRESERBAK
☎ 946 81 27 26
☎ 688 863 736
✉ biblioteka@iurreta.eus

MALUTA X
Gabonetako Zirku Gala

Abenduak 27 - 19:00
Abenduak 28 - 19:00
Abenduak 29 - 12:30 / 19:00

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

San Agustin KULTUR GINEA

Joseba Derteano MALLABIA

Mallabian bizi zenean atletismoan aritu zen; disko jaurtiketan, batez ere. Gazte mailan Espainiako laugarren eta bosgarren geratutakoa da. 18 urte-gaz Gasteizera joan zen ikastera, eta harrezkero han bizi da. Orain, mendiko bizikleta asko gustatzen zaio.

Zelan zaletu zinen mendiko duatloira?

Mallabian izan zen, orain zazpi-zortzi urte. Urte batzuk neramatzen Gasteizen bizitzen, eta asteburuetan Mallabira etortzen nintzen gurasoak eta neba bisitatzerara. Herrian mendi duatloi bat egin behar zela jakin nuen eta kuriositatea piztu zidan. Ibilbidea lagun batez egin, eta parte hartzerara animatu nintzen. Orduan ez neukan bizikleta onik. Aitari bere bizikleta eskatu nion, atera kontuak! Aitarena ez zen batere ona, baina horregaz egin nuen proba herrikoia, laburra goa zen ibilbidea. Horixe izan zen nire lehenengo hartu-eman mendiko bizikletagaz, eta asko gustatu zitzaidan.

Mendiko bizikleta deskubritu zenuen.

Guztiz! Gauza bat gustatzen zaitzunean indar eta ahalegin gehiago eskaintzen diozu eta horixe da nire kasua. Duatloiez gainera, BTT probak egiten hasi nintzen eta horretan jarraitzen dut. BTT lasterketak non dauden begiratzen ibiltzen naiz. Bizikletan asko gozatzen dut.

Korrika baino gehiago?

Bai. Duatloietan korrikako sektoreetan sufritzen joaten naiz. Denbora gehiegi ez galtzea izaten dut helburu, badakidalako gero bizikletan hobeto defendatzen naizela.

Bigarren urtez jarraian irabazi duzu zirkuitua. Aurtengoa zertan izan da diferentea?

Biak nahiko antzekoak izan dira. Ni errealista naiz eta badakit nire maila zein den. Nire txapelak erregulartasunaren garaipenak dira. Aurten lasterketa guztiak egin ditut eta horrek asteburuero puntuatzeko aukera eman dit. Beste emakume batzuk ni baino hobeak dira, baina ez dute denetan parte hartu. Horregaitik geratu naiz ni aurretik. Iaz berdina gertatu zen.

Txapelaz haratago, gustura geratu zara zure errendimenduagaz?

Orokorrean, bai. Akaso, Amasakoan ez nintzen gustura sentitu. Sentsazio txarragaz amaitu

"Nire txapelak erregulartasunak emandako garaipenak dira"

NEKANE PRADERA BELAR (MALLABIA, 1989) MENDIKO DUATLOIA

Nekane Praderak Euskal Herriko Mendi Duatloien zirkuitua irabazi du. Armarik onena erregulartasuna izan du. Proba guztietan podiuma egin eta Kanpezukoa irabazi egin du



Nekane Pradera, mendi duatloi batean. EHMZ

nuen, baina beste denetan ondo sentitu naiz, batez ere Kanpezukoan. Horixe izan da irabazi dudana bakarria. Gainera, ni baino maila hobea duen Maiteren [Urteaga] aurretik geratu nintzen. Korrika ni baino askoz gehiago da, eta normalean bizikletan ere bai, baina ibilbide teknikoak eta hobeto moldatu nintzen. Nik aurretik amaitzea denentzat sorpresa izan zen. Korrikako lehenengo tartean nire aurretik zihoan, logikoki. Bizikletako lehenengo itzulia amaitzean bera ikustea espero zuten denek, eta neu agertu nintzen lehenengo. Nire gurasoak harrirituta geratu ziren: "Pasatu zarenean inguruan galdetu dugu, ea lehenengoa gu konturatu barik pasatu den!", esan zidaten (barreak). Neu ere harriritu nintzen bizikletan lehenengo jarri nintzenean. Asko motibatu ninduen eta irabazi nezakeela pentsatu nuen.

Aurten iaz baino lehia gogorragoa egon da emakumeetan?

Parte hartze handiagoa egon da. Oso onak diren bi hasi dira: Maddi Olaetxea eta Maite. Ainhoa Marquinez ere hor dago. Beti orporik orpo izan dut Ainhoa.

"EA KORRIKA GEHIAGO EGITEN HASTEN NAIZEN; BIZIKLETA ERRAZAGO HARTZEN DUT"

Korrika ni baino gehiago da, eta bizikletan neu nabil apur bat hobeto. Elkar estutzen ibili gara.

Beraz, urterik urtera gatxagoa da irabaztea.

Bai, baina askoz politagoa da. Aurreko urteetan txapeldun geratu ziren neskek diferentzia handiak markatu zituzten. Argi zuten inork ez zituela harrapatuko. Ez zegoen emoziorik.

Zirkuituko lehenengo lasterketa Durangon izan da. Zelako lasterketa iruditzen zaizu?

Teknikoki errazena iruditzen zait. Horregaitik, beste proba batzuetan baino jende gehiagok ematen du izena, baita nesketan ere, eta polita da ikusteko. Bestelakoan, teknikoki zailtasun handirik ez izateak momentu guztietan topera joan beharra dakar.

Hirugarren amaitu zenuen, Enara Oronozen eta Maite Urteagaren atzetik. Zelan gogoratzen duzu lasterketa?

Parte hartzaile batzuk ez nituen ezagutzen. Maite bera ez nuen ezagutzen. Berriak ziren, eta zalantzak nituen: zelako maila ote dute? Ni non ibiliko naiz? Horrelako kontuak. Helmugan, Maite Enararengandik 20 bat segundora bakarrik sartu zela esan zidatenean sorpresa hartu nuen! Sekulako maila duela jabetu nintzen. Niri zortzi bat minutuko alde kendu zidan. Bigarren lasterketa Kanpezukoa izan zen. Horregaitik uste zuten denek, nik barne, nire aurretik amaituko zuela.

Datorren urtean ere parte hartuko duzu?

Printzipioz, bai. Ez dut uste irabaztea lortuko dudunik. Maddiri eta Maiteri gustatu zaie eta datorren urtean ere parte hartuko dutela uste dut. Erregularrak badira, nire aurretik ibiliko dira. Dena dela, ni ahaleginduko naiz. Ea korrika gehiago egiten hasten naizen eta maila hobea erakusten dudana.

Korrika hobetzeko ahalegin berezia egingo duzu?

Beti ahalegintzen naiz, baina apur bat alperra naiz korrika egiteko. Bizikleta errazago hartzen dut, gehiago gustatzen zait.

Zelan duzu egutegia?

BTT probak otsailean hasten dira eta batzuetan parte hartuko dut. Bi-hiru eguneko probak gustatzen zaizkit: asteburu-pasa zoaz, giro polita dago...

Amorebietak etxeko bolada onari eutsi gura dio

FUTBOLA Natxo Gonzalezek taldearen gidaritza hartu duenetik, talde zornotzarrak etxean jokaturiko partidu biak irabazi ditu. Zapatu honetan Barakaldoren kontrako derbia jokatu du Urritxen, sailkapeneko zulotik irteteko puntuen bila

J.D. ZORNOTZA

Etxean otso eta kanpoan uso. Horrelaxe dabil Amorebieta azken hilean, Natxo Gonzalezek taldearen gidaritza hartu zuenetik hona. Horren aurretik, etxean ere uso zebilen, eta, beraz, alde horretatik behintzat hobekuntza igarri da.

Amorebietak etxean jokaturiko azken partidu biak irabazi ditu: 2-1 Barcelona Athletic taldearen aurka, eta 2-0 Sestaoren kontra. Zaleek denboraldi osoan ez bezala gozatu dute euren taldeagaz. Gura baino gehiago sufrituta irabazitako partiduak izan dira, batez ere katalanen kontrako. Urdinek 92. minutuan berdindu zuten bost minutu lehenago aldats gora jarritako partidua, eta 93.ean sartu zuten garaipenaren gola.

Zapatu honetan, 20:30ean, Barakaldo hirugarren sailkatuak bisitatuko du Urritxe. Etxean hirugarren garaipena segidan lortzen eta sailkapeneko zulotik



Jokalariak gola ospatzen. SD AMOREBIETA

—azken tokian daude— irteten ahaileginduko dira urdinak.

Etiket kanpora ahul

Etiket kanpora beste era batekoak dira kontuak. Denboraldi osoan bezain ahul jarraitzen

dute. Taldeak zazpi gol jaso ditu azken irteera bietan, eta burumakur itzuli dira Ponferradatik eta Donostiatik. Edozelan ere, kontuan hartzekoa da Natxo Gonzalezen estreinaldian Arenteiro zazpigarren sailkatuaren kontra baturiko puntua (1-1).



Txikigym erakustaldi bat. UZTAI

Txikigym erakustaldian batuko dutena Valentziara bidaliko dute

GIMNASIA ERRITMIKOA Zapatuan lorturiko dirua Valentziako denboraleak kalteturikoei laguntzeko izango da

J.D. DURANGO

Durango Uztai Taldeak umeen Txikigym gimnastika erritmiko erakustaldia antolatu du zapatuko. 11:00etan izango da, Landako kiroldegian. Bizkaiko hainbat klubetako eta ikastetxetako benjamin-aurreko umeen saioak ikusi ahal izango dira. Umeek urtean zehar ikasitako guztia erakutsiko dute. Sarrera doakoa izango da.

Ekimenak izaera solidarioa izango du. Cafes Baquek emandako kafea eta Uztaiko kideek egindako bizkotxoak salduta batuko dute dirua. Kafeak euro

bat balioko du, eta bizkotxoak beste euro bat. Aurten, salmentaren bitartez lorturiko dirua Valentzian denboraleak kalteturikoei laguntzeko erabiliko dute.

Uztai gimnastika erritmiko elkarteak abenduero antolatzen du Txikigym erakustaldia, eta izaera solidarioa izaten du beti. Iaz, esaterako, 440 euro batu zituzten eta dirua Bihotzez elkarteari eman zioten. 2022an, 505 euro lortu zituzten, Leukodistofien aurkako Elkartearentzat, eta 2021ean 435 euro, Sindrome 4P elkartearentzat.

JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

Gabonak: lehen zatia, amaituta

Bai. Segundo gutxi falta dira eta lehenengo zati hone-tako erasorako azken baloia daukagu. Garrantzitsua da jaurtiketa on bat egiteko aukera lantzea, saskiratzen badugu bigarren zatia ondo hasteko aukera izango dugulako, eta horrekin denboraldiko helburuak betetzen jarraituko dugu, azken txanpan topera egoteko. Etxeko lanak garaiz egitea komeni da, amaierako larritasunak alboratzeko.

Hirugarren Mailan (aurreko EBA maila) dabilen Tabirako Baque mutilen taldea ez dabil ondo. Hamar partidutik garaipen bakarra dauka eta, zoritxarrez, Bilbao Basket Fundazioaren aurkako partidua galdu egin zuen, gutxigatik izan bazen ere. Denboraldi zaila eta gogorra biziko dute, baina ikusitako hobekuntzek taldea indartu egin beharko dute, hurrengo partiduetan garaipenak lortzeko. Batez ere Landako kiroldegian jokatu direnak. Garrantzitsua izango da Durango gotorleku bihurtzea.

"TABIRAKO BAQUE MUTILEN TALDEA EZ DABIL ONDO. HAMAR PARTIDUTIK GARAIPEN BAKARRA DAUKA"

"TABIRAKO BAQUE NESKEN TALDEAK HIRU GARAIPEN LORTU DITU SEGIDAN ETA BOSGARREN TOKIRA IGO DA"

Tabirako Baqueren nesken taldeak, ostera, hiru garaipen lortu ditu jarraian azken jardunaldietan, eta sailkapenean bosgarren postura igo da, aurretik daudenengandik garaipen batera. Aurreko denboraldian landutako oinarriak taldea indartu egin duela nabari da eta lortzen ari diren emaitzek taldearen lana erakusten dute.

Egunotan 2024ko azken jardunaldiak jokatu dituzte eskualdeko talde guztiek, eta ea emaitza onak lortzen dituzten, 2025. urtea topera hasteko. Aurrera!

Bien bitartean, Gabonetan, hainbat torneo edo txapelketa jokatu dira. Durangon, adibidez, 2011ko eta 2012ko taldeen torneoak egingo dira, abenduaren 27an eta 28an. Bestalde, Zaldibarren Zalduek abenduaren 21erako antolatu du bere Gabonetako txapelketa; inguruko talde guztiei egin zien gonbidapena.

Ia egunotan denok ederto baten amaitzen dugun urtea eta topera disfrutatzen dugun. 2025a urte oparoa izan dadila guztiontzat!

GUARDIAKO BOTIKAK

ABENDUAK 13 BARIKUA

09:00-09:00

De Diego, Inbaurrondo 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 14 ZAPATUA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 15 DOMEKA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ABENDUAK 16 ASTELEHENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 17 MARTITZENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 18 EGUAZTENA

09:00-09:00

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ABENDUAK 19 EGUENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

ZORION AGURRAK



GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Urte askotarako!


Zorionak, Iraia (1001. alea)!
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

ZORIONTEKO HIRU BIDE

- Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu.
- Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Anbotora edo deitu 946 232 523 telefonora.



Alize Beitia
Abenduaren 15ean, 9 urte. Gure etxeko sorgintxuak urteak egiten ditu. Zorionak, Gari, amaren eta aitaren partez. Maite zaitugu.




Izaro Argos Velerdas
Abenduaren 13an, 5 urte. Iruñean bizi dan Izarori zorionak Berritzik, lehengusu Gari eta Lierren partez, eta batez ere amama Maribiren partez.




Martin eta Telmo
Abenduaren 16an, Telmok 11 urte eta 21ean Martinek 13. Jarraitu ezazue zoriontasun horrekin. Muxu handi bana!



Manex
Zorionak, Manex! 4 urte egin dozuz, muxu handi bat etxekoan partez! Mara, aitatxo eta amatxo.



Gari
Abenduaren 14an, 6 urte. Abenduaren 14an gure Garik 6 urte egingo dauz. Zorionak etxeko danon partez!



Maren Bijelic Aldekoatolara
Abenduaren 15ean, 21 urte. Zorionak familia osoaren partez!



Jaione
Abenduaren 15ean izeko Jaionen urtebetetze da. Zorionak etxeko danon partez!



Tabirako Baque Alai
Joan zen astean bisita paregabea izan genuen ANBOTO. Biba zuek!

MEZA

**MARIA FRANCISCA VELAR ETXANIZ**

Orozketa-lurreta: 1922.01.08

Sor Jesus - Hospitalarias del Sagrado Corazón de Jesus, erlijiosa



Saint Martin de Seignanx-en (Frantzia) hil zan, 2024ko azaroaren 24an, 102 urterekin, eta 79 bizitza erlijiosoan.
Bere koinata: M^{re} Angelica Guerrero Nenen (Juan Migelen alarguna), loba eta lehengusu-lehengusinak.

*Bizi osoa gaixoak eta behartsuak zaintzen.
Eskerrik asko zure jarraibide eta fidelitasunagatik.*

Mesa: Datorren domekan, abenduak 15, Durangoko Andra Mari Uribarriko basilikan.

ESKELA

**Nekane Etxaniz Betegi**
Ikastolako langile eta bazkidea

Oroitzen gara gu zutaz jantokiko egunetan janari goxo-goxoa zenuen zuk eskuetan.

Bihurri samarrak ginen baina zu zeunden ondoan umeak berriz poz-pozik egon dira urteotan.

Baina ikastolarentzat faltako zara askotan egindako lan guztia gaude zurekin zorretan.

Hitz hauek zuretzako dira entzun zu zauden lekuan Nekane, bihotz-bihotzez, eskerrik asko benetan.





Betikoak flexografia

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOKAK

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

IURRETA ERAIKUNTZA BERRIA. 2 eta 3 logela.

Garajea eta trastelekua.

256.000 €-tik aurrera

AZOKA BERRI 1,2 eta 3 logelako etxebizitzak.

Garajea eta trastelekuarekin. **212.000 €-tik aurrera.**

AUKETA

DURANGO: Apartamentua. Erdialdean. Guztiz berriztatua. 2 logela eta komuna. Bizitzentzako sartzeko moduan. **C.E.E=E 143.000 €.**

ABADIÑO: Bizitzentzako sartzeko moduan. 2 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Hegoaldea. Mendi ikuspegiak. **C.E.E=E 198.000 €**

IURRETA: Bidebarrieta. 70 m². 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Hegoaldea. **C.E.E=F 169.000 €**

IURRETA: (Bixente Kapanaga): 106 m². 4 logela eta 2 komun. **C.E.E=G 150.000 €.**

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Txaleta. 423 m². 5 logela eta 4 komun. Txokoa. Terraza. Lorategia. 4 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 697.000 €.**

JUAN MARI ALTUNA: 89 m². 2 logela, 2 komun eta sukaldea. terraza. Trastelekua. **C.E.E=E 265.000 €**

MURUETA TORRE: 97 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Garajea eta trastelekua. Eguzkitsua. Ikuspegiak. **C.E.E=E 330.000 €.**

Komentu kalea: 70 m². 2 egongela handiak, komuna, sukaldea despentsarekin eta egongela terrazarekin. **C.E.E=E 187.000 €**

UNDA TORRE: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=D 273.900 €**

Montebideo 3 logela eta komuna. Bizitzentzako sartzeko moduan. Ganbara. **190.000 € C.E.E=F**

Ezkurdi: 100 m². 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea aukeran. **239.000 € C.E.E=E**

Astxiki: 147 m². 4 logela eta 2 komun. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Balkoia. **C.E.E=E 380.000 €**

Berriz: Bizitzentzako sartzeko moduan. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=F 160.000 €**

Berriz: Duplexa. 3 logela eta 2 komun. Garaje itxia 2 kotxerentzako. Ikuspegiak. **C.E.E=E 330.000 €**

Matiena: 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzentzako sartzeko moduan. **C.E.E=G 127.000 €**

BASERRIA: berriztatua. 436 m². 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **C.E.E=F 470.000 €**

GARAJEAK SALGAI

ERDIALDEAN: Garajea. **13.000 €**

J.M.ALTUNA: Garajea. **15.000 €**

MENDIZABAL: Garaje itxia. **23.000 €.**

OLLERIA: 135 m². Lokal egokitua.

ALLUITZ: 70 m². Lokal egokitua. Erakuslehiua.



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI**DURANGO**

Askatasun etorbidea: 2 logela, 2 komun eta sukalde-egongela. Terraza handia. Garajea eta ganbara.

Pinondo: Logela biko atiko ederra. Sukaldea eta komuna. 50 m²-ko lokalarekin batera salgai.

Barrenkalea: Logela bateko apartamentua. Sukaldea, egongela, eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Oso argitsua.

BERRIZ

Berriz: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta tra stelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

LURSAILAK SALGAI

Tabira: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

Iurreta: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Berriz: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

Atxondo: Axpe. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

Mendata: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

BULEGOAK ALOKAIKIRUAN**ABADINO**

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIKIRUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALAK SALGAI

Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



C.E.E: F. 190.000 €

DURANGO Montebideo: 70 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna duxarekin. Egoera onean baina hobekuntzak behar ditu. Barrualdea. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. ITE-a pasatutakoa. NEGOZIAGARRIA.



C.E.E: E. 119.000 €

DURANGO San Fausto: 48 m². Egongela-sukaldea, 2 logela eta komuna. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-ekialdea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta herriko sarreratik gertu. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: E. 310.000 €

DURANGO Askatasun Etorbidea: (1.991. urtean eraikia): 88 m². Halla, egongela, sukaldea, despentsa, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-iparraldea) Argitsua. Zonalde berdez inguratuta eta zerbitzuguneak gertu. Herriko sarrera/irteeratik gertu. Egoera onean. Ganbara eta garajea. Bigarren garajea erosteko aukerarekin + 20.000 €.



C.E.E: E. 168.000 €

IURRETA Zubiaurre: 66,43 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, despentsa eta komuna. Egoera onean. Pisu altua. Argitsua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea) Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Banaketa berri bat egiteko aukerarekin. ITE-a pasatutakoa.



C.E.E: BIDEAN. 185.000 €

MATIENA Lauideta: 80 m². Sukaldea, 2 despentsa, egongela, 3 logela, eta komuna duxarekin. Balkoia eta terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (ipar-mendebaldea) Argitsua. Ikuspegiekin. Egoera onean. Zonalde lasaia, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Herriko sarrera-irteeratik gertu. ITE-a pasatutakoa.



Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

DURANGO

Askatasun Etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

Barrenkalea: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € / ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Bartolome Ertzilla kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Ganbara. **Lehen 170.000 € - Orain 159.000 € / E.E.Z=E**

Frantzisko Ibarra: 4 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. igogailua. **335.000 € / E.E.Z=E**

Juan de Olazarán: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

Montorreta kalea: 3 solairuko pabilioia. 1309 m² inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= Salbuetsita.**

Santikurutz Kalea: Etxebizitza bifamiliarra eraikitako 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharberitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolako: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **325.000 € / E.E.Z=G**

Txanporta plaza: Eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **253.000 € / E.E.Z=Bidean**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitako baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitako baserria lursailarekin. **350.000 €**

GARAIA

Momoiitio auzoa: Etxebizitza eraikitako lursailak. Aukera ezberdinak.

IURRETA

Bixente Kapanaga: Zaharberitzeko etxebizitza. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **95.000 € / E.E.Z=F**

IZURITZA

Elizalde auzoa: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000 € ORAIN 570.000 € / E.E.Z=E**

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak.

LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

PISUAK ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.



LAU-HORTZA

BIXENTE AIZPURUA
EGUREN

Etxeak

Pertsonak eta harriak elkar lotuta daude, baina zoritzarrez herri askotan harriek pertsonak baino garrantzi handiagoa dute.

Etxebizitzaren falta izugarria dago eta askok ezin dute etxerik aurkitu, eta aurkitzen badute askok ezin dute erosi edo alokatu; orduan, zergatik ez zaio irtenbiderik ematen arazo larri honi?

Udal gehienek lurrak eta eraikinak dituzte arantzez beterik edo jausten. Zergatik ez dituzte alokairu sozialeko etxebizitzak egiten? Eta beraiek ez badute baliabiderik, jar ditzatela Eusko Jaurlaritzaren eskuetan berak burutu dezan lan hori herritar askoren zorionerako.

Elorrioren, adibidez: Aldapa-beitia Jauregia hutsik dago eta beharrezkoa den Eguneko Zentrorako tokia utziz nahiko espazio dago alokairu sozialeko etxeak egiteko. Berrio Otxoa kalean zegoen liburutegi zaharra ere alferrik galtzen ari da.

Udalak ez daitezela ezkutatu patrimonioak trabak jartzen dituela esanez. Zertarako behar ditugu jauregi eta lur horiek hutsik eta alferrik galtzen hainbeste pertsona etxe bila dabilenean? Gainera, udal guztiek apartamentu batzuk izan beharoko lituzkete. Adibidez, tratu txarrak jasaten dituztenentzat.

Utzi aitzakiak eta hasi lanean herritar guztiek etxe duin bat izateko duten eskubidea lortzeko.

AKUILUA

"Mexikarrek dena berba politekin azaltzen dute"

INTZA IBARRETXE IRAZOLA TALDE TREBATZAILEA

Intza Ibarretxe (Abadiño, 1998) Pueblan (Mexiko) bizi izan da hiru urtez; uztailen etorri zen. Etorkizunean berriro bueltatzeko asmoa du, baina ez daki noiz

Aitziber Basauri ABADIÑO

Intza Ibarretxe Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Gradua (LEINN) amaitu ondoren joan zen Pueblara, Mexiko Hiria-ren hego-ekialdera. Jaurlaritzak emandako Global Training beka batez joan zen, 2021ean.

Sei hilabeterako joan zinen arren, hiru urte egin dituzu Pueblan.

Hala da. Pandemia pasatu ondoren, Pueblako hirigune historikoko komertzioak berrakibatze-proiektu batean lan egitera joan nintzen, Jaurlaritzak emandako beka batez. Hiru lagun joan ginen: Andrea Angulo barakaldarra, Asier Ortega galdakotarra eta ni neu. Beka amaitu ondoren, Pueblako Unibertsitate Iberoamerikarreko LEINN graduan talde trebatzaile lez lan egiteko aukera sortu zitzaidan. Han lanean zeuden euskaldun bi ezagutzen nituen. Aukera aprobetxatu nuen eta beste urte bi egin nituen unibertsitatean lanean.

Beraz, ondo egokitu zinen.

Bai. Oso erraza izan zen. Ez nengoen bakarrik. Gainera, besoak zabalik hartu gintuzten. Oso ondo sentiarazi gaituzte beti. Kulturalki desberdintasunak daude, jakina, baina oso ondo tratatu gaituzte beti. Unibertsitatean har-



Intza Ibarretxe, Pueblan.

"PUEBLAN BESOAK ZABALIK HARTU GINTUZTEN. OSO ONDO SENTIARAZI GAITUZTE BETI"

tu-eman handia izan nuen eta ondo egokitu nintzen hango bizimodura. Neure taldetoxa egin nuen. Pueblako jatetxe euskal-mexikar batean euskaraz abesteko aukera izan dut; zuzeneko emaldiak egiten nituen, asteburuetan. Eta, 'El picoteo' *dark-kitchen*-a

—sukaldea bakarrik duen lokala— zabaldu nuen; etxera eramateko janaria eskaintzen genuen. **Ikasle lez joan zinen eta irakasten amaitu zenuen. Hezkuntzan desberdintasun handiak topatu dituzu?**

AEBen antzera, campus handiak dituzte. Ikasleek egun osoa ematen dute han. Segurtasun handia dago eta ezin da edonor sartu. Hemen campusak txikiagoak dira eta ia edonor sartu daiteke.

Zelakoak dira mexikarrak?

Oso jatorrak direla esango nuke. Euskaldunon izaera zuzenagoa da, igual. Gu zakarragoak gara, batzuetan ematen du haserre gaudela. Mexikarrek dena berba politekin azaltzen ahalegintzen dira beti, guk baino suabeago. Baina askotan gauza berari buelta mordo ematen diote, azkenean leku berera heltzeko.

Zerk harritu zaitu gehien?

Mexiko segurua ez den irudia heltzen zaigu, baina nik neuk ez dut horrela bizi izan. Hori bai, hiriburu eta errealtate asko daude, oso desberdinak. Hala ere, hemengo antzera sentitu naiz, segurtasunari dagokionez. Horrek onera harritu nau.

Zeren falta igarri duzu han?

Familiarena, lagunena, etxe giroa sentitzearena... Pueblan nire etxea eta nire ingurua sortzen ahalegindu naiz. Baina urtean behin Euskal Herrira etortzen ahalegindu naiz.

Oso desberdinak dira Mexiko eta Euskal Herria?

Klimari eta izaerari dagokionez, bai. Baina han ere errealtate desberdinak bizi dituzte; Pueblan, Chiapasen eta Cancunen, adibidez. Askotariko kultura eta errealtateak daude.

Mexikon bisitatzeko leku bat?

Puebla, jakina.



SAN ROKE BARRIA

Bizimodu berri bat Durangon.

Zure hitzordua eskatu:
946 462 041
 sukia.com

2. Fasea eraikitzen hasi gara.

sukia
 Zure etxean zaudete. Estás en tu casa.